

TOKIKOM

2019ko apirila | 191. zenbakia

ai kor!

txorierriko al

Aitor Elizegi
**Errezeta
zuri-gorria**



aste kulturala


PRRix, PRRix
eta **Marxistots**



Maiatzaren 3an
Kiroldegian 18:00



ivigito



Maiatzaren 4an
Dorretxea 19:00

MIKEL MARTINEZ

OIHAN VEGA



Maiatzaren 10ean
Baserri Antzokian 19:00



Maiatzaren 9an
Dorretxea 19:00



Maiatzaren 11n
Bidegorri Taberna 19:30



ZAMUDION EUSKARAZ?
HOBĀ EZ!



Bizkargiko igocra
Maiatzaren 5ean
Piazaatik 9:00

Ardo kata ikastaroa
Maiatzaren 8an
Baserri Antzokian
19:30



Babeslea:



Zamudio ezagutuz
Maiatzaren 11n 10:00
Frontoian 12:30



-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Iker Mijangos *Boker*, kolore-aireak
-  **12** Gurean izan da... Edorta Jimenez idazlea
-  **14** Gaztea eta... Jon Loidi Begoña, artista
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Aitor Elizegi Athleticen presidentea
-  **22** Bizigune Zabal proiektua
-  **24** Derioko jaiak
-  **28** Makilak, belaunaldiak batzeko
-  **30** Munduko Landagunea
-  **32** Korrika 21
-  **35** Aikorrizketa... Iñaki Gaminde
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



24 Derioko jaiak



32 Korrika 21, Txorierriin



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Sara Gandara, Einer Larrabeiti, Aner Mentxaka, Oier Bel-darrain, Xabier Diaz, Idoia Andres, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Hil egin dituzte filosofoak, antropologoak eta feministak. Birrin-du. Munduko diru-jabe nagusiek ez dute pertsona gehiagorik gura; makinak nahiago. Ordea, garestiegia da haientzako ere. Horregatik hil dituzte hausnartzen dutenak: haien ekarpenik gabe aginteak errazago kontrolatu ahal dituelako gainerako gizakion ekintza, jarrera, emozio eta nahiak.

Dagoeneko badago "robotizazio" horren aztarna. Begiratu dezagun nork bere kolkora, eta behatu gainerakoak baloratzeko dugun modua. Adibide gisa gaztelaniazko zenbait adierazpen aipatuko ditut, hizkuntza horretara aldatzeko joera ere barruraino sartuta daukagu eta: "el/la chapas, la/el gordx, la/el hippie, el/la borrachx, la/el calladx, el/la gay/lesbiana". Etiketak banatzen ditugu pertsona horien laburpena baltitz bezala, beren osotasunean ezagutzea saihestu nahian agian.

"Ring-ring!" Ea Sistemak zer dioen balorazioari buruz beste lineatik: "Zure puntuazioak 8,94 izan behar du". Hau

#

da hau pagotxa. Etiketak ez direnean, zenbakiak (animo selektibitate eta oposizioekin zabiltzatenoi). "Sailkapen mota hori beharrezkoa da; bestela horrenbeste izanda ez du astirik ematen". Noiz utziko diogu saltzen digutena errepikatzeari? Izan ere, gauzak beste era batean egitea posible da, baina, bai, utopikoa dela sinetsita lasaiago goaz ohera.

Hil baino lehen, pentsalariak azken ondorio batera iritsi ziren. "Lengoaia aldatu behar dugu: ez naiz beltza, ez naiz abokatua, ez bisexuala, ezta autista ere. Nire azala da, egiten dudana lana, ez dut generoa aukeratzen sexu eta maitasun-harremanetan, zailtasun eta abantailak ditut. Ez naiz".

Halaber, azken ideia horrekin bat etorrita, badago oraindik gizartearen zati bat ez dagoena pasibotasunaz janzteko prest, nahiago duelako, adjektiboak edo zifrak jartzen ibili beharrean,



EINER LARRABEITI
Psikologian graduduna

aldamenekoarengan arreta jarri, lan-kontratazioarako pertsonaren adimen emozionala kontuan izan, barnekoa atera eta elkarren artean komunikatu, zintzotu, elkarri lagundu eta bidezkoaren alde lan egin; erlojuari begiratu gabe garrantzitsua den horri denbora eskainita. Ai ama, besoa metal kolorea hasi da hartzen; ez dute honi buruz hitz egiten ibiltzea nahi... 3, 2, 1... "Orrialdean akats bat egon da. Saiatu zaitetz beranduago".

Ezin ukatu teknologia gure bizitzetara iritsi dela betiko gelditzeko. Hasieran aukerak ez ziren oso anitzak, baina, urteen poderioz, gure sakelako telefonoari esker denetik egin dezakegu. Gure gailuak alarmak dira, erlojuak, kalkulagailuak, kronometroak, egutegiak, argazki eta bideo-bildumak... Jakina, telefonoz hitz egiteko ere balio dute, horixe falta zen bakarrik! Baina teknologia berrien ondorioz, benetako zonbi ere bilakatu gara. Menpekotasunak ez du etenik, ezta mugarik ere.

Aurrerapauso teknologikoen aldekoa naiz, baina teknologia gu kontrolatzera igarotzen denean, gaizki. Eta

Zonbi teknologikoak



SARA GANDARA
Kazetaria

hamaika adibide jar daitezke. Esaterako, kalean, pantailari begira mugitzen gara. Eta are okerrago: autoan ere bai. Gero eta gidari gehiago ikusten ditut sakelako telefonoa maneiatzen ari direla. Eta ez berba egiteko, whatsapppe erantzuteko baizik. Ez dakit nola egiten duten, benetan zaila iruditzen zaidalako. Zaila eta arriskutsua. Begietara begiratzeari utzi diogu pantailari begiratzeko. Eta ez zait gehiegi gustatzen. Izan ere, begirada soil batek asko esan dezake. Pantaila soil batek baino askoz ere gehiago.

Alaia
fruta-denda
Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Taller, 5
48170 Zamudio
94 481 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Poloniara bidean



Unibertsitate garaian, banuen Alberto izeneko ekonomia irakasle bat. Unibertsitateko klaseez gain, siderurgiako enpresa batean egiten zuen lan; horrek ez zion, baina, unibertsitateko lana ongi gauzatzeko trabarik egiten. Izan ere, prestatutako apunteak ezin hobeak ziren: hirurogei bat orrialdetako koadernotxo uztaiduna, txiste, bitxikeria zein pasadizo ugariz betea. Gauzak azaltzeko zuen era ere bitxia bezain ona zen. Amorebietatik Txinara trennez joandako norbaiten klaseek bereziak izan behar dute, alajaina!

Nork ikusi du *Ben-Hur* filma? Eta *Curro Jimenez*? *Aitabitxia* (berez, *The Godfather* filma, *Aitajauna* bezala itzuli zuten, baina barkatua zaude Alberto!) filma nork ikusi du? Hainbat gauza azaltzeko, filmei egiten zien erreferentzia, azalpen ulerterraza izan genezan. Enpresetako aholkulariei buruz

hitz egiteko, *Aitajaunaren* aholkulariaren azalpena ematen zigun; erantzukizun zibilaren nondik norakoak irakasteko, *Ben-Hur* eta galeretako eszenak; eta *Curro Jimenez* telesailak lan-baldintzak hobetzeko azalpen modura balio zuen. Bikaina benetan.

Azkenaldian bolo-bolo dabilen euskal bikoiztaileen aferak Alberto gogorarazidit, baita bere film bidezko azalpenak eta, bereziki, ikasgelan niri pertsonalki gertatutako pasarte barregarri bat ere. Bada, ikasgelan geundela, irakasleak apunteetako paragrafo bat irakurtzeko agindu zidan. Nik, ikasle gehienek egin ohi duten legez, ez nuen gogo handiegirekin irakurri, eta testu horretan berak bereziki prestatutako txantxa edo txisteaz ez nintzen ohartu; nire erruz, beste klasekideak ere ez. Apunte horiek prestatzen emandako

denbora zela eta, ez zion graziarik egin horrek, eta honakoa bota zidan: "Ikusi duzu noizbait polonieraz bikoiztutako filmik? Bada, jatorrizko hizkuntzan entzuten da soinua, eta gero zertxobait baxuago zuk irakurri duzun bezala irakurtzen duen morroia". Hura zalaparta eta barre algarak klasean! Lauhileko osoan zehar "poloniar" deitzen ibili zitzaizkidan klasekideak.

Ettxera heldu, Interneten sartu, eta polonieraz bikoiztutako film bat deskargatu nuen. Egia zen! Irakasleak esan bezala! Morroi bat akabatzen ari ziren filmean, eta poloniar morroi hark kilimak egiten ibiliko balitzaizkio bezala bikoizten zuen. Nik irakurri bezala hitz egiten zuten! Orduantxe konturatu nintzen apunteak izorratu niziola.

Aspalditik darama euskal bikoizketak hiltzorian, besteak beste, EITBK zein Eusko Jaurlaritzak hori gerta ez dadin neurriak hartzen ez dituztelako. Laurogeita hamarreko hamarkadan 1.000 ordu inguru bikoizten ziren, eta aurten 100 ordu baino ez. Lan-kargaren murrizketa gutxi ez balitz, bikoizleen soldatak azken urteotan % 30 jaitsi dira. Horrek BIEUSE (Euskal Bikoiztaileen Elkarte) sortzera eta greba egitera bultzatu ditu bikoizleak. Eztabaida sortu du horrek, komunikabide zein sare sozialetan, eta azpidatzien alde egiteko debate antzua ere zabaldu da bertan. Baina ez gaitzezen benetako eztabaidatik aldendu; azpitoluak gehigarri izan daitezke, baina ez dute bikoizketa ordezkatu edo baztertu behar. Kalitateko euskal bikoizketa behar dugu, ugaria eta anitza. Egin dezagun BIEUSEren alde, egin dezagun euskal bikoizketaren alde, edo has gaitzezen maleta prestatzen, Poloniara bidean baikoaz.

Andoni Solorzano Orue

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Asteleheneetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* ikuskizunak hasiera emango dio Lagatzuren Euskal Asteari

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Euskal Astea antolatu du 17. aldiz maiatzaren 3tik 11ra. Pailazoen ikuskizunaz gainera, besteak beste, hauek ere egongo dira: Iñigito Txapelpunken kontzertua, ardo-dastatze ikastaroa, Oihan Vegaren umorezko bakarriketa, 3zpalau saioa eta Mikel Martinezen *Tabernaria* antzezlan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Musua* ikuskizuna maiatzaren 3an, 18:00etan, izango da Zamudioko kiroldegian. Sarrerak zortzi euroan eros daitezke udaletxean eta estancoan. Hurrengo egunean, maiatzaren 4an, Iñigito Txapelpunk musikariak kontzertu akustikoa eskainiko du 19:00etan Zamudiotarren, eta maiatzaren 5an Lagatzukoak Bizkargi mendira joango dira Arroeta mendi taldeko kideekin batera. Hitzordua 09:00etan ipini dute plazan.

Maiatzaren 8rako, ardo-dastatze ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa Baserri Antzokia egingo dute 19:30ean, eta izena ematea lagatzu@lagatzu.org helbidera idatzita egin behar da, edo Lagatzuko kideei esan. Bestalde, Oihan Vegak *Zergatik praktikatzen dugu sexua euskaraz?* umorezko bakarriketa aurkeztuko du maiatzaren 9an, 19:00etan, Zamudiotarren.

Maiatzaren 10ean, 3zpa4 musika-saioa ikusteko aukera egongo da Baserri Antzokian, 19:00etan. Sarrerak 10 euroan eskuratu daitezke Baserri Antzokian bertan edo liburu-dendan. Euskal Asteari maiatzaren 11n emango diote amaiera, eta eguna ekitaldiz beteta etorriko da. Goizeko 10etan, "Zamudio zure herria ezagutu" umeentzako ibilaldi didaktikoa egingo da, eta 12:30ean pilota-partiduak izango dira Arbolantxa pilota eskolaren eskutik. Azkenik, Mikel Martinez aktoreak *Tabernaria: instrukzioak botatzeko ondo*



bat kaña umorezko antzezlan eskainiko du 19:30ean, Bide Gorri tabernan.

Bestetik, aipatu beharra dago aurre ere Euskal Kanten ikastaroa egingo dutela. Aurtengoa 18. edizioa da eta, ohi bezala, irakasle Itsaso Arrieta ibiliko da. Ikastaroa maiatzaren 20an eta 27an, 19:30etik 20:30era, izango da Zamudiotarren. Euskara elkarteko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte; eta bazkide ez direnek, 13 euro. Izena emateko, lagatzu@lagatzu.org helbidera idatz daiteke, edo Lagatzuko kideei esan.



Tabernaria saioa. a: Loraldia, David Herranz

RPS: 194/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

ERREKA ONDO
JAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Unbe kalea berrituko du Derioko Udalak

Udalak jakinarazi duenez, berritze-lanak hasi baino lehen, beste hobekuntza batzuk egingo dituzte inguruetan. Horrela, sarrera berri bat egingo da kiroldegian: sarrera eraikinaren albo batean ipiniko da, eraikinarekiko paralelo dagoen eta Unbe kalea eta Arantzazu kalea lotzen dituen bide-tartean, hain zuzen ere.

Era berean, oinezkoentzat pasabide goratu berria atonduko da Gernikako Arbola etorbidean; kale horren eta Arantzazu kalearen arteko bidegurutzearen albo batean, alegia. Azkenik, Arantzazu kalea eta Gernika Arbola etorbidea lotzen dituen L-itxurako bidean aldatuko da zirkulazioaren noranzkoa. Azaldutakoaren arabera, modu horretan erraztu egingo da autoak kiroldegia-aren aurreko aparkalekura sartzea eta handik ateratzea.

Lehen esan moduan, lan horiek egin ondoren hasiko da Unbe kale osoa berurbanizatzen. Obrak Belako enpresak egingo ditu, eta Udalak orotara 746.816 euro ipiniko ditu lanotan. Derioko Udalak espero du berritze-lanak urtearen amaieran hasia eta zortzi asteren buruan amaituta egotea.

Argiteria

Bestetik, Derioko Udalak argiteria hobetuko du herriko 19 lekutan: 17 tokitan eraginkortasun energetikoa eta argiztapena hobetuko dira; eta beste bietan argi berriak jarriko dira. Lanetan 120.000 euro gastatuko ditu.

Argi berriak Maurikobaso bidean eta Doneztebe bidean ipiniko dira, eta Larrabarroko futbol-zelaiko 12 argien ordeztu LED argiak jarriko dira. Herritarren proposamenak kontuan hartu, eta argi berriak ipiniko dituzte oinezkoen pasabide hauetan: Mungialde etorbidea, Uribe kalea eta Errementariñe eta Aldekone Goikoaren arteko pasabideetan. Era berean, argi berri bat jarriko da San Migel plazan eta oraingo argien ordeztu LEDak ipiniko dira. Institutu ondoko geltokian ere ipiniko da argi berri bat, eta LED argiak jarriko dira baserri batzuetako sarbideetan. Azkenik, argi berri bat ipiniko da Uribe Parkeko umeen jolasgunean, eta Ganbeko Hariztikoko bideetariko batean zortzi argi ordezkatzeko dira.



Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotsa

“PBL metodologiari esker, ikasitakoa egoera erreal batean aplikatzeko aukera duzu”

Xabier Dominguez Ureta (20 urte, Sondika) Mekanikako Ingeniaritza graduako 2. maila ikasten dabil Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

Aurkeztu apur bat zure burua: non egin zenituen Unibertsitate aurreko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Unibertsitate aurreko aurreko ikasketak Sondikako Gorondagane ikastolan hasi, eta Artxandape eta Begoñazpi ikastolatan bukatu nituen. Nire zaletasunak mendiak igotzea, palan jokatzeta eta, orokorrean, kirola egitea dira.

Zergatik aukeratu zenuen Mekanikako Ingeniaritza Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Mekanikako Ingeniaritza aukeratu nuen, betidanik jakin eta ulertu nahi izan ditudalako gauzak nola funtzionatzaren duten edo beraien jokaera zein den. Txikitan, gainera, gauzak eraikitzea gustuko nuen, aita gauzak konpontzen eta proiektu berrietan lan egiten ikusten nuelako. Mondragon Unibertsitatea lagun batzuegatik aukeratu nuen. Hasieran ez nituen bertoko metodologia eta funtzionatzeko era ezagutzen, baina informazioa bilatzen hasi nintzen eta, ate irekietara etorri ondoren, hona etortzea erabaki nuen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Momentuz esperientzia ona eta polita bizitzen ari naiz, inolako arazorik gabe, bai unibertsitate barruan, bai kanpoan. Arrasaten bizi naiz, pisu batean, eta hortik ere asko ikasten da. Egia esan, lan handia egin behar da ikasketak ondo era-

mateko, baina lagunartean disfrutatzeko denbora ere hartzen dugu.

Nolakoa da MU-Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasitako metodologia?

Nire ustez, PBL metodologia unibertsitatean aplikatzea oso aproposa da, ikasitako kontzeptuak egoera “erreal” batean aplikatzen dituzulako, eta horrek oinarri hobeezina ematen dizu lanean hasi nahi duzunera. Gainera, proiektuek alor asko lantzeko aukera ematen dizute: talde-lana, komunikazioa, arazoei aurre egitea, planifikatzea eta abar.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zai-zuna? Zerbait aldatzeko?

Gehien gustatzen zaidana, dudarik gabe, proiektuen garaia da. Egia da lan handia egin behar duzula, baina ez da klasera joatea bezala. Proiektuetan taldekideekin zabalitza lanean eta gauzak askoz dinamikoagoak eta entretenigarriagoak dira.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik goiz da erabaki ahal izateko, baina mekanika arloan lan egitea gustatuko litzaidake: momentuz ikusitako arloetatik gehien gustatzen zaizkidanak diseinua eta materialak dira. Nire burua enpresa batean lanean ikusten dut, adibidez, Zamudioko Parke Teknologikoan. Edonola ere, gutxienez Gradu Bukarako Lana enpresa batean egingo dudanez, horrek lagunduko dit ideiak argitzen. Horretaz gain, Erasmus-Plus programak ematen duen aukeraz baliatu, eta gradua amaitu aurretik nazioarteko esperientzia bat bizi nahi dut: sei hilabete edo urte bat atzerriko unibertsitate edo enpresa batean igaro.



Larrabetzun eroritako pilotu naziaren hilarria gorde du Udalak

Burdinazko hesia defendatzen zebiltzala, eusko gudariek August Wilmsen pilotu alemaniarrek gidatzen zuen hegazkina lurrera bota zuten. Hegazkina Larrabetzutik hurbil erori zen: abioia txikituta zegoen, eta pilotu nazia erabat kiskalita. Faxistak Larrabetzura sartzeaz zeudela hil zuten Wilmsen. Burdinazko hesia apurtu eta herrira sartu zirenean, faxistek hilarria ipini zuten alemaniarren oroimenez.

Udalak azaldu duen moduan, hilarria "landa batean izan da orain arte, inolako babesik gabe", eta horregatik erabaki dute hura gordetzea, "izan ditzakeen kalteak edo hondatzea saihesteko". Larrabetzuko Udala 1936ko gerra eta ondorengo urteetako memoria historikoa berreskuratzeko egitasmoa lantzen dabil, eta herrian memoriaren zentroa sortzeko asmoa dute. Hilarria bertan ipiniko lukete hura testuinguruan kokatzeko.

Wilmsen hilobiak honela dio: "Hemen erori zen 1937ko ekainaren 1ean, Espainiaren alde, August Wilmsen, 1913ko martxoaren 14an, Kefrelden jaioa". Hainbat herritarrek gogoratzen dutenez, 1936ko gerra bukatu, eta autobusa etortzen zen Alemaniatic Larrabetzura, pilotu naziari omenaldia egitera.

610 kopa saldu ziren Txakolinaren Egunean, Larrabetzun

Txakolinaren Eguna 18. aldiz antolatuta zuten apirilaren 14an Larrabetzun. Goizean giro aparta egon zen plazan: eguraldi ona egin zuenez, hainbat jende batu zen bertara. Iñaki Suarez eta Elena Urigüen sommelierrek brindisa egin zuten eguerdian, baita dastatze txiki bat ere. Adituek esan zuten, aurtengo ekoizpena iazkoa baino txikiagoa izan da, baina txakolinaren kalitatea, aparta. Guztira 610 kopa saldu ziren, eta kopa bakoitzeko euro bat eman zitzaion Garmitxa elkarteari.

Azokak ortuko produktuak eta txakolina bultzatzea izan zuen helburu. Larrabetzun bailarako zazpi txakolin-egile batu ziren: lau lezamar –Magalarte, Basalbeiti, Erdikoetxe eta Garkalde– eta hiru larrabetzuar –Gorka Izagirre, Sasine eta Bitxia–. Gainera, Gupide elkarteak postu batzuk jarri zituen bertoko produktuak saltzeko: ogia, barazkiak, gazta... Arratsaldean dj bat aritu zen Hori Bai gaztetxean eta, horri esker, herrian goizean ez ezik arratsaldean ere egon zen giro polita.



LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen konsumitzaileak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu emailerako garbiketa
Ikusketarako
Zabere hileta

Besside Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORRIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai leaguzuz Facebook-en

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORRIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com



a: Idoia Andres



“Azken barikuko kontzertuak”, Lezaman

Ekimenak Oxangoiti kultur elkarteak sustatu du. “Oxangoiti taberna da, eta taberna-kutsu horretan bakarrik ez geratzeko, ekintzak antolatu dira urteetan, esate baterako, hitzaldiak, erakusketak eta kontzertuak”, azaldu digute elkartekoek. “Azaroan kontzertu bat antolatu genuen Igor Urrutikoetxea Urruti-ren omenaldia-
ren harira, eta pentsatu genuen ideia ona izango litzatekeela data batzuk ipintzea eta hemendik udara bitartean musikaren bidez herriari ekarpena egitea”. Ekimena horrela jaio zen. Gainera, garai hartan Eusko Jaurlaritzak ikuskizun publikoak arautzen zituen araudi berria onartu zuen, eta horretan ezarri zen taberna batek urtean gehienez 12 kontzertu antolatu zitzakeela. “Azkenean atzera egin dute arauarekin, baina hori iragarri zutenean gu ere kontra

agertu ginen, bidegabekia zela pentsatzen genuelako, eta ekimena gure jarrera azaltzeko modua ere izan da”.

PPM Cover Sessions-ek hasiera eman zion kontzertu-sailari martxoan. “Ekintzak oso harrera ona izan du. Jende asko batu zen Oxangoiti tabernan, eta batzuk ka-
lean ere izan ziren. Herriko jendea egon zen bertan eta oso pozik gaude”. Antolatzailen esanetan, gehienbat kontzertu akustikoak eskainiko dira “Azken barikuko kontzertuak” ekimenaren barruan. “Kontzertuak udara arte izango dira, eta gero, irailean, ikusiko dugu egitasmoarekin aurrera jarraitzerik dagoen. Era berean, aztertuko dugu beste formaturen batekin ere saia gaitezkeen, adibidez, bakarrikz-
tekin”. Hurrengo kontzertua Patxuko Nicek eskainiko du apirilaren 26an, 20:00etan.

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitz doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

SOLAZPI
Goititza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

Bizkaia
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

**ELORRIETA
INSTALACIONES**
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Etxebizitza Plan berria onartu dute Loiun

Loiuko Etxebizitza Plana Ariztondo-Txilline sektoreari dagokio eta ahobatez onartu da herriko Udaltzain. Plana Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko dute, behin betiko onar dezaten. "Etxebizitza Plan berriak Loiun bizkortu eta auzo sendo bat sortuko du. Auzo hori herriguneko ardatzetako bat izango da eta herriko merkataritza eta etxebizitza suspertuko ditu", adierazi du Josu Andoni Begoña alkateak bere blogean.

Azken 20 urteotan ezin da etxebizitzarik eraiki Loiun, eta Ariztondo-Txilline sektoreari esker udal agintariek espero dute herrira gazteak erakartzea. Horretarako, udal babeseko etxebizitzak egingo dituzte. Alkateak jakinarazi duenez, laster zerrenda zabalduko da etxebizitza horien zozketan parte hartu ahal izateko. Ariztondo-Txilline sektorean 450 etxebizitza eraikitzeke asmoa dute, eta inguruan berdeguneak, pasealekuak eta bidegorri bat atonduko dira. Bestalde, haurreskola bat zabalduko da bertan.

Gazteen topaketak, Loiun

Loiuko Bakarrak gazteen elkarteak N.Gure Eguna antolatu du maiatzaren 11rako. Egun osoan ekitaldiak egongo dira. Horrela, bada, umeentzako tailerrak egingo dira 11:00etan; eta trikipotea, 12:30ean. Herri bazkaria 15:00etan izango da, eta ostean, 18:30etik aurrera, Taberna Ibiltaria musika taldea ibiliko da herria giroten. Gauean, 23:00etatik aurrera, jaiak aurrera egingo du eta kontzertuen txanda izango da. Agertokira hauek igoko dira: Suaia eta Ama Rebel, Mad Muasel & Big Sound Boy eta Dj Munza.

Alkateek saiak antzemateko teknologia eskatu dute



Loiun, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Erandioko alkateek Aenari eskatu diote Loiuko aireportuko Fauna-batzordearekin premiazko batzarra egiteko. Bilerak horrek helburu hauek izango ditu: saiaren edo putreen arazoari aurre egiteko orain arte hartu diren neurriak aztertzea, eta Aenari eta AESari (Aire Segurtasuneko Estatu Agentzia) exijitzea hegaldien eta herritarren segurtasuna bermatzeko edozein neurri har dezatela.

Adierazi dutenez, batzar horretan eskatuko dute saiak antzemateko radarrak erabiltzen berehalaz hasteko, eta falkoneria robotika ere erabil dezatela hegaztiak uxatzeko. Era berean, Aenari eta AESari exijituko diete talde egoki bat osatu dadila, indarrak putreen arazoa konpontzen bakarrik ipin ditzatela eta talka gehiagorik ez egoteko premiazko neurriak bultzatu eta koordinatu ditzatela. Gainera, euren ustez, talde horrek administrazioen artean modu koordinatuan bultzatu beharko lituzke Loiuko aireportuaren inguruetan

hegazti handiak ez egoteko egin beharreko ikerlanak eta etengabe hartu beharreko neurriak. Bestalde, batzar horretan aztertu nahi dute, baita, Aenak sortutako adituen taldeak orain arte egin duen lana. Adituen talde horretan hegazkintza, aire segurtasun eta fauna arloetako adituak eta ornitologoak daude.

Esan dutenez, aurreko bileran, alkateek eskaera hauek egin zituzten: azterketa zientifiko zehatza egin dadila hegaztiak hegaldiei ekar diezazkieketen arazoei aurre egiteko; aire-zirkulazioaren eta inguruetako auzokideen segurtasuna bermatzen duten berehalako neurriak hartu daitezela, eta saiei jarraipen-sistema bat ipin dakiela, euren jokaraz eta ezagutzeko. Halaber, alkateek bat egin zuten pilotuen eskaerarekin, hegazti arriskutsuen presentzia denbora errealean jakinarazten dien sistema bat ezar dadin. Apirileko alea itxi orduko alkateek oraindik ez zuten jaso Aenaren erantzunik, Fauna-batzordearekin batzarra egiteko.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudio

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



Iker Mijangos *Boker* | kolore-aireak

Break Dance-a eta rapa bezala, graffitia hip-hopeko diziplina dugu, eta Iker graffitiaren esentziak ilegala izan behar duela dioten horietakoa da. Mundu honetako alde bietan ibili da derioztarra: ezkutuan graffitiak egiten eta baimendutako muralak koloreztatzen. Hamahiru urte zituela hasi zen lehen lanak Interneten egiten, laguntza barik, irudimenez, eta han eta hemen ezagutu dituen pertsonengandik ikasten. Txorierriko graffitiaren erreferentea dugu.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Boker behin agirian
eta behin gordea,
sprai gorri, berde, baltz
laranja, morea...
Horma grisen aurrean
izan adorea,
emaiezu bizia
eta kolorea!

Itallen Bertso Eskola



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

**BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



bai
euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkarte

Lan eta bizi euskaraz

"Irakurleek nire kontatzeko gogoarekin gozatzea nahi dut"

t: Gaizka Eguzkitza

Berriro Larrabetzun. Zertarako balio dute horrelako ekitaldiek, irakurleekin?

Horretarako, hain zuzen ere, irakurleekin egoteko. Eta ez edozein irakurlerekin. Larrabetzuko tradizio literario sakona du. Beraz, harremana ederragoa eta aberasgarriagoa izaten da guretzat. Larrabetzu berezia da niretzat. Izan ere, nire ustez, kultura deszentralizatu egin behar da, hau da, dena ez da Bilbon gertatu behar, baita Larrabetzu bezalako herri txikietan ere. Eta horretan Larrabetzu aitzindaria izan da. Pena izan da Literaturia azoka Zarautzera eramane behar izana, Gipuzkoako herria handiagoa delako. Literaturian ere egona nintzen.

Zer ematen dizute idazleoi irakurleek?

Guk idatzi egiten dugu eta sarritan idatzi dugunaz ohartu ere ez gara egiten. Irakurleek euren ikuspuntua ematen digute, eta batzuetan guk ez diogu garrantzirik ematen haiek azpimarratzen digutenari. Feedbacka ikaragarria da. Esate baterako, batek esan zidan nire azken liburua ipuin-sorta bat zela. Hori ez zen nire asmoa eleberria idatzi nuenean, baina tira...

Hitz egin dezagun liburuari buruz. Zer da *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua*?

Nobela da, 2017. urtean gertatzen dena. Atzean Kataluniako auzia dago. Liburuan pertsonaia batzuk daude, eta apurka-apurka euren bizitzak uztartzen ditut: ertzain bi, preso bat, aingeru bat... Hainbat gai jorratzen ditut eleberrian: sexua, gatazkak, biolentzia, maitasuna... Nobela beltza da, gatazkaz betea. Eta beltza da, krimenen ikerketa dagoelako: batetik, ertzain batek

EDORTA JIMENEZ | idazlea

Edorta Jimenez berriro etorri da Larrabetzura, oraingo honetan bere azken eleberria, *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua*, aurkeztera. Idazle mundakarra gustura dago irakurleekin, beste ikuspuntu bat ematen diotelako. Txorierri ere gustatzen zaio, Larrabetzuko "tradizio literario sakona baitu".



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
brufak
biskotak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 3. Iruja - Sondika, 48150 • 94 453 09 19



inpunitatez egindako torturak; eta bestetik, txakurrak hiltzea.

Liburuaren izenburua nahiko enigmatikoa da. Azalduko diguzu?

Ez, irakurleak azken orrialdeetan jakingo du. Ez da komeni dena argitzea. Zerikusia du tradizioarekin: irlandarrek uste dute ostadarrek lurra ukitzen duen lekuan altxorra dagoela. Eta euskal tradizioak? Bada, misterio bat dago horren inguruan eta ezin dut argitu, amaiera hondatuko baitut. Nik aurkitu nuen eta horregatik jarri nuen izenburu hori. Eta horri esker, konpondu ahal izan dut idatzi nuen korapiloa. Nobela korapilatsua da eta korapiloak askatzea ez da erraza izaten.

Eleberrian gai bortitzak jorratu dituzu: tortura, ustelkeria, biolentzia, sexua... Zelan saihesten da morboa?

Naturaltasunez. Eleberri hau egin baino lehen zor bat nuen: orain arte ez dut inoiz eleberri bat gaur egunean kokatu. XVI. mendean, Erdi Aroan eta Gerra Zibilean, bai, ordea. Ekintzaile soziala naiz eta

"Kultura deszentralizatu behar da: dena ez da Bilbon gertatu behar; Larrabetzu bezalako herri txikietan ere bai"

oso kritikoa naiz gertatzen denarekin. Eta hori guztia liburuan sartu beharra nuen naturaltasunez, inolako morborik gabe. Pertsonaia guztiak maitatu ditut, baita txakurkumeenak ere. Esate baterako, torturazailerak atsegin egiten da, guztiak enpatiaz tratatu ditudalako.

Liburua ez da denbora-pasa hutsa, sakona eta kritikoa baita. Ausarta izan behar da gai horiek horrela jorratzeko?

Batez ere narrazioa egin nahi izan dut. Gauzak kontatzeko gogo asebete dut eta dena dago horren mende: hizkuntza, ahozko hizkera, gaur egungo euskara eta gaztelaniaren arteko nahaste hori, euskara batua... Esate baterako, "baina" hitza ez da ia agertzen. Izan ere, narrazioa mendian behera dabilen erreka bezalakoa izan da, armoniaz betea eta oztopo guztiak gaindituta. Dena dela, nik ez nuke liburua kritikoa denik esango, baina egia da ironiaz eta umorez egin dudala. Eta irakurleek nire kontatzeko gogoarekin gozatzea nahi dut.

Iñigo Cabacas auzia aipatu duzu liburuan. Nolako eragina dauka horrek eleberrian?

Oso ona da joko literarioarako. Pertsonaia nagusietako batek katarsia behar du, momentu batean bere bizitza ezbaian jartzen duelako. Cabacas auziak sinbolismo ikaragarria dauka liburuan. Ez da nik egin nahi izan dudana salaketa, berez etorri da. Horrela idazten dut: zerbait entzuten badut, zerbait berezia edo xelebrea, gorde egiten dut eta liburuan sartu. Prozesua erabat espontaneo da. Ni ez naiz protagonista, baina nire bizitzaren pasarteak

"Horrela idazten dut: zerbait berezia entzuten badut, gorde egiten dut eta liburuan sartu. Erabat espontaneo da"

dira. Mendekua ere jorratzen dut eleberrian. Orain, badirudi mendekua hitza debekatuta dagoela, baita gorrotoa ere, baina biak gizakiok ditugun sentimenduak dira. Eta jakin behar da nondik sortzen diren.

Entzun dut omenaldiak ere egin dituzula liburuan...

Bai literaturari berari. Idazle batzuen testuak berridatzi ditut: Raymond Chandler, Joseph Conrad, Jorge Luis Borges... Nire ametsetako bat izan da.

Idazle oparoa

Edorta Jimenez Ormaetxeak (Mundaka, 1953) irakasle ikasketak egin zituen. Idazle oparoa da. Hasieran, poesia idazten zuen, baina gaur egun ez da poemak idaztera esertzen. "Azken poesia liburuak oso kritika onak izan zituen, baina ez nuen saldu. Poesiak neure buruan idazten ditut, ez paperean. Askotan burura etortzen zaizkit, entretenigarriak dira, baina besterik ez". Jimenezek genero guztiak jorratu ditu: saiakerak, biografikak, gazteentzako liburuak... Bere lanari esker, sari batzuk irabazi ditu: Azkue Literatura Saria, *Baleen berbaroa* (1997) liburuarengatik; eta Julene Azpeitia ipuin-lehiaketa, *Akitaniatik datorren berba berria* (1995) lanarengatik.



Errealitatearen eraldatzailea

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: J.L.

JON LOIDI BEGOÑA | artista

Gaztea beti izan da ona margotzen eta diseinu grafikoak bereziki sortu zion jakin-mina. "Irudiak sortzea da gehien gustatzen zaidana. Ezohiko gauzak egiteko aukera ematen dit", azaldu digu. "Esfortzu barik egiten dut eta, gainera, oso ondo pasatzen dut hortik argazki-kamara aldean dudala ibiltzen naizenean edo ordenagailuaren aurrean nagoenean. Ni bakarrik. Askatasuna ematen dit". Aitortu duenez, derioztarrak errealitatea eta ingurua itxuraldatzea gustuko du, eta, horretarako, zientzia-fikziozko filmetan oinarritzen da. "Diseinuak aukera handia ematen du argazkiaren planoan ez dauden gauzak sortzeko, eraikinen estrukturak aldatzeko edo koloreak uztartzeko. Nik argazki bat atera, ordenagailuan ikusten dut eta neure gustura editatzen dut". Batez ere Deriotik eta Bilbotik ibiltzen da irudi bila. "Eraikinei eta gauzei erreparatzen diet eta pentsatzen dut horiek nola eralda ditzakedan. Normalean, sakelako telefonoarekin egiten ditut argazkiak; gero, beste egun batean, argazki-kamerarekin itzultzen naiz argazkia zenbait alderdi kontuan hartuta –argia, adibidez– berriro egitera".

Diseinu grafikoari buruzko ikastaro bat egin ostean, eta bere diseinuek eduki zuten harrera onak ere animatuta, argazkigintzari eta bideoegintzari buruzko ikastaroak burutu zituen. "Hemezortzi urterekin hasi nintzen YouTubera Athleticeko futbol-partiden bildumak igotzen, eta lagunekin ere bideoak grabatzen nituen barreak egiteko. Diplomatura bat ikastea erabaki nuen eta nahiko ondo irakatsi zidaten bideo bat zinemagintzan eta telebistan nola egiten den. Batez ere bideo laburrak zuzendu ditut, baina ikaskideekin batera film labur bi ere egin ditut:

Loidik enpresa-zuzendaritza ikasi zuen, baina ikasketak amaitzeaz zegoela konturatu zen benetan gustatzen zitzaiola diseinua zela. Hogeita zortzi urteko derioztarra buru-belarri hasi zen diseinu grafikoaren munduan, eta gaur egun argazkigintzan eta zinemagintzan ere gogotik dabil, sortzea oso atsegin du eta.

Down the drain eta *Lo mejor del día*. Azken hori Zinebi jaialdira aurkeztu genuen eta, nahiz eta saririk ez jaso, oso harrera ona izan zuen". Berak bakarrik zuzendutako film labur bat ere badu: *Unlikeman*. "Iaz grabatu nuen senide, lagun eta lagunak lagunekin. Istorioa neuk idatzi nuen eta, beste erremediorik ez zegoenez, zuzendariaren lanak ezezik protagonista nagusiaren papera ere egin

Loidiren lanak Kultur
Birikan egon dira
ikusgai

behar izan nuen. Pertsonaia nagusia gizarte-sareen eta teknologia berrien gaur egungo erabileraren kontra dago, baina oso hacker trebea da eta gaitasuna erabiltzen du jendea kontrolatzeko edo abusu-arriskuan daudenak salbatzeko". Hogei minutuko lana da, hala ere, egunak eman ditu hori grabatzeko; ia aurrekontu barik. "Olentzerok ekarri zidan dirua erabili nuen materiala erosteko, hala nola kamerarako egonkorgailua. Eta handik hona ibili behar izan nuen pertsonaia nagusiarentzako arropa lortzeko, maniki bat topatzeko... Kokalekuei dagokienez, etxean grabatu nuen, Derion bertan eta inguruetan. Egia esan, baliabide hoberik ez

*"Irudiak sortzea da
gehiengustatzen
zaidana. Ezohiko
gauzak egiteko
aukera ematen dit"*



Errealitatea eta ingurua itxuraldatzea gustuko du; horretarako, zientzia-fikziozko filmetan oinarritzen da

izateak mugatu egin ninduen, baina oso ondo pasatu nuen eta pozik nago emaitzarekin, filmatzea batzuetan kaos handia izan zen arren". Diseinu grafiko, argazkigintza eta bideogintza arloetan egindako lanak bateratzeko asmoz, marka bat asmatu du: JL adventures.

Ideiak bueltaka

Loidik batez ere musu-truk egin ditu orain arteko lanak. "Lagunentzat lan egin dut, argazkilari ibili naiz produktore baterako ... Hala ere, esan beharra dago azkeanean produktoreak ordaindu egin zidala; nik eskatu barik, izan ere, lan hori praktika eta ikasketa izan zen niretzat. Bestalde, logotiporen bat diseinatu dut eta bideo bat egin dut herriko dendarien elkarterako: lan horiek ere ordaindu egin dizkidate". Gaztearen esanetan, berak jorratzen duen esparruak eskaera gutxi du. "Diseinua eta argazkigintza ikuspuntu artistikoago batetik lantzen ditut eta merkatuak zerbait teknikoagoa eskatzen du: katalogoak, webguneak... diseinatzea. Bartzelonan, Madrilan edo atzerrian beste ikuspuntu

zabalago bat dute". Horregatik uste du zaila izango dela berton lan finkoa topatzea; dena dela, aitortu du ez duela pentsatu kanpora joatea bizimodua ateratzera. "Hemen go bizitza gustatzen zait. Baina, bue-
no, etxetik kanpo denbora luze ez egotea eskatzen duen lanaren bat aterako balitz, arazo barik hartuko nuke". Itxaropena ere ez du galtzen. "Arlo honetan hiru urte bakarrik daramatzat eta esan liteke oraindik zaletasuntzat dudala; etorkizunean profesional moduan zerbait egiteko esperantza dut".

Idea batzuk ditu buruan bueltaka: *Unlikeman* film laburraren bigarren zatia, esaterako. "Gidoiaren zati handi bat idatzita daukat. Hori landuagoa eta sakonagoa izango da eta baliabide hobeak ditudanean grabatuko dut; egitasmoari beste

era batean heltzea gustatuko litzaidake". Argazkigintzari dagokionez ere baditu proiektu batzuk: besteak beste, argazkisaio berezi bat eta Bilbo ikuspuntu futurista batetik landuko duen argazki-proiektu bat. "Eta prest nago enkarguak onartzeko".

Bitartean, bere burua trebatzen jarraituko du. "Argazkilaritzaren zuzendari izateko ikastaroa egiten nabil orain, hori gehien gustatzen zaidan lanpostua da eta. Bestetik, hobetzeko eta ikasten jarraitzeko beste ikastaroren bat ikusten badut, hori ere egiten saiatuko naiz. Halaber, jorratzen ditudan arloei lotutako liburuak irakurtzen ahaleginduko naiz, neure burua trebatzen segitzeko. Eta denboraren poderioz zaletasuna lan egonkorra bihurtuz gero, bada, perfektua izango litzateke". Horretan dabil Loidi, bide egiten.





NORDIC LINE I
— LIMITED EDITION —
Maltzaren 31ra arte

Nordic Line I ohea (180x200 cm)
+ Top Softline III (Latex naturala)
+ Fenix Landscape Oheburukoak
+ Hantak (aukera)

2.950€





SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATBEDENERAKO

WWW.SUITDELUX.COM

SUITE DELUX LEIOA
Iparragirre 80, Leioa.
Telf. 944 316 516.

SUITE DELUX DERIO
Seminarioa, Derio.
Telf. 94 4545 147

ZURE OHEA ALDATUKO DUGU, ZURE BIZITZA HOBETUKO DUGU.



Familian korrika egiteko lasterketa, osasungarria eta inklusiboa

Osasunaren aldeko Txorierriko VI. Lasterketa-martxak 634 pertsona bildu zituen, tartean mugikortasun murriztua duten lagun ugari. Lezama eta Larrabetzu artean bi ibilbide atondu ziren: bata, zazpi kilometrokoa; eta bestea, bederatzi kilometrokoa. Jaialdia Larrabetzun egin zen.



Osasunaren aldeko Txorierriko VI. Lasterketa-martxak 600 pertsona baino gehiago bildu zituen apirilaren 7an. Egitasmoa printzipio hauetan oinarritu zen: jarduera fisikoari lotutako bizitza-eredu osasungarria, eta kirol-praktika inklusiboa eta familian egiten dena. Lezama eta Larrabetzu artean bi ibilbide atondu ziren: bata, zazpi kilometrokoa; eta bestea, bederatzi kilometrokoa. Bizikletaz, korrika eta oinez, familia ugari hartu zuten parte aurtengo edizioan, tartean mugikortasun murriztua duten lagun askok. "Azeri natura guztiontzat" kooperatibari esker, Yanik Aspace Bizkaiko kideak ibilbidea egin ahal izan zuen mugikortasun murriztua duten pertsonak lekualdatzeko aulki egokitu baiten. Guztira, 634 pertsonak eman zuten



Izen-ematearen bidez bildutako dirua hauei eman zaie: ImpulsaT, AprendeTEA, Cornelia SCDL eta Aspace Bizkaia

izena. Horietatik 223k 15 urte baino gutxia-
go zituzten, eta 411 helduak ziren.

Hitzorduak izaera solidario nabarmena
izan zuen, eta izen-emateen bidez bilduta-
ko diru guztia elkarte hauentzat izan zen:
ImpulsaT (merosina eskasia duten umeak
sendatzeko), AprendeTEA (Autismo Espek-
troaren Nahasteak eta Asperger dituzten
Familien Prestakuntza eta Aisiaren Susta-
penerako Elkartea), Aspace Bizkaia (ga-
run-paralisia duten pertsonen laguntzeko
elkartea) eta Cornelia SCDL (Cornelia de
Langeren sindromea duten pertsonen el-
kartea).

Txorierriko Mankomunitateak ekitaldia
antolatu zuen, eta Igotz López mankomu-
nitateburuak zinta moztu zuen alkateen
eta elkarteetako ordezkarien aurrean. Par-
te-hartzaileak 11:00etan irten ziren eta
Aretxalde auzoaren (Lezama) eta Anguleri
kalearen (Larrabetzu) arteko ibilbidea egin
zuten, boluntario askok lagunduta. Horiek
informazioa eman zuten bidegurutzeean,
ibilbidean aurrera egiteko, eta jan-edana
banatzen lagundu zuten irteeran, ibilbi-
dean zehar eta Larrabetzun.

Ekitaldia familia osoarentzat antolatu
zen, eta hainbat adinetako pertsonentza-
ko jarduerak egon ziren. Lasterketa amaitu
ostean jaialdia egin zen Larrabetzun, eta
denetarik izan genuen: jan-edana, zozke-
tak, puzgarriak, ohe elastikoak, zirku-taile-
rra eta aurpegia margotzeko tailerra. 501st
legion-Spanish Garrison ere bertan egon
zen. Oihan Vegak girotu zuen jaialdia bere
musikarekin, eta familia-giroko hitzordu
honetara bertaratutako guztiak animatu
zitu.

Mankomunitateak elkarteetako bolun-
tarioen lankidetzak eskertu zuen, ibilbideko
zenbait puntutan egon baitziren eta elkar-
te bakoitzeko informazioa eta materiala ba-
natzeko mahaia jarri baitzituzten. Gainera,
eskerrak eman zizkion 501st Legion-Spa-
nish Garrisoni, ekitaldian parte hartzeaga-
tik, eta Leioako Altxaga ikastolako Altxerri
mendi taldeari, egindako dohaintzagatik.

Lokalean programako gazteak elurretara joan dira



Martxoaren 24an, Derioko bost
taldek eta Sondikako beste bi taldek
parte hartu zuten elurretara joateko
irteeran. Ekimena Susterra elkarteak
antolatu zuen, Lokalean programari
esker. Hori gazteen lonjetan dihar-
duen programa da eta Txorierriko
Zerbitzuen Mankomunitateko Esku-
hartze Komunitarioko Zerbitzuak
kudeatzen du.

Egun osoko irteera izan zen Alto
Campoor. Goizeko 6:15ean gelditu
ziren egunari hasiera emateko.
Txorierriko 42 gazte elkartu ziren:
Derioko lau gazte lokaletako kideak
eta lokal gabeko beste talde bat, eta
Sondikako bi lokaletako gazteak.
Hala ere, horrek ez du esan nahi,
ekintzan bakarrik bi udalerrri horie-
tako gazteek hartu zutenik parte,
lokaletan Derio, Zamudio, Sondika,
Loiu eta Lezamako gazteak ere bai-
taude. Gainera, Susterra elkartearen
eskutik, beste udalerrri batzuetako
gazteak ere ibili ziren topaketan:
Galdakaokoak eta San Frantzisko eta
Abusu auzoetakoak, hain zuzen ere.
Guztira, 90 lagun elkartu ziren, elu-
rretan gozatzeko.

Irteera hau egitea ez da kasualitatea
izan, haren atzean helburu batzuk daude
eta: alde batetik, gazteen parte-hartzea
sustatzea, beraiek ere irteeraren antola-
ketan parte-hartze aktiboa izan baitute;
bestetik, aisialdi osasungarria eta eskura-
garria bultzatu nahi izan da. Era berean,
euren arteko harremana bultzatuz, kon-
taktu-sarea zabaltzeko aukera eskaini
zaie. Azpimarratzekoa da aukera parega-
bea ere izan dela elkarteetako hezitzaileak
eta gazteak elkarrengana hurbiltzeko.
Horrela, hezitzaileek gazteekin duten ha-
rremana sendotu eta indartu da.

Pasa den urtean ere hau bezalako bes-
te ekintza bat egin zen. Orduan 18 gaztek
parte hartu zuten. Beraz, ikus dezakegu,
hezitzaileek gazteekin harreman estua-
goa dutenez, parte hartzeko gogo han-
diagoa erakusten dutela.

Bai hezitzaileek, bai gazteek oso era
positiboan baloratu dute ekintza. Gazteen
esanetan, koordinazioa eta antolakuntza
oso ondo egon da eta aurretik egindako
lanaz jabetzeko aukera eduki dute. Gaine-
ra, oso gustura egon dira, egunean zehar
egindako dinamikaren bitartez beste he-
rrietako gazteekin erlazionatzeko aukera
izan baitute.

"Epe ertainean, Fundazioak zuzendu behar du kluba"

AITOR ELIZEGI | Athleticen presidentea

Abenduan, ustekabez, Athleticen bazkideek Aitor Elizegi aukeratu zuten presidente, klubeko 32.a, alegia. Sukaldariak 20 urte daramatza familiarekin Zamudion bizitzen eta lotura estua du Txorierriekin. Elizegik pasioz hitz egin digu bere bizitzari buruz: Txorierri, sukaldaritza eta, noski, Athletic, "bere ametsa".

t/a: Gaizka Eguzkitza

Ehun egun bete dituzu Athleticen. Zelan zaude?

Ehun egunean ibili gara lanean, ilusio handiarekin. Egun biziak izan dira eta apurka-apurka gabilta klub profesional batek ekartzen dituen betebeharretara moldatzen.

Zergatik kostatu zitzaizun aurkezteko erabakia hartzea?

Etorkizunari buruz hitz egin dezagun. Beti esan dut nire ametsa Athletic dela, eta horrela izango da betiko. Zerbait egiten dudanean, guztiz inplikatzeko naiz. Ez dut uste oso ondo kozinatzen dudarik, baina argi dut ordu asko eman dizkiedala sukaldaritza, Euskadiri eta Athletici.

Nolako Athletic topatu duzu?

Kirol arloan, kezkatuta. Aurreko entrenatzaile biek ez zuten asmatu. Gaur egun, aldiz, Andoni Aiarzak, Rafa Alkorta, Gaizka Garitanok eta Patxi Ferreirak osatzen duten taldea klubaren oinarri garrantzitsua da. Gabeziak ere baditugu: gizarte arloan, berrikuntza eta digitalizazioa; San Mamesek etorkizuneko futbol-zelaia izan behar du; klubeko langileen arteko kooperazioak handiagoa izan behar du; markaren eta negozioaren garapena bultzatu behar da... Eta, batez ere, erronka handi bati egin behar diogu aurre geuk eta gure atzetik etorriko direnek: zelan heldu gazteengana. Euskaldunek jakin behar dute Athletic herritik sortu dela, himnoak esa-

*"Erronka handi bati egin
behar diogu aurre geuk
eta gure atzetik
etorriko direnek: zelan
heldu gazteengana"*

ten duen moduan. Athletic bizkaitarron nortasunean dago eta hori da gure indarguneetako bat: esate baterako, bilbotarrrek utzi digute futbol zelaia hiriko lekurik onenetariko batean eraikitzen; eta Lezamak, 120.000 m²-ko kirol eskola bertan egiten. Ezin diogu eurek klubari emandako konfiantzari huts egin. Tamalez, gaurko munduak hori guztia jarri du zalantzan.

Zergatik?

Azken urte hauetan, ikaragarri aldatu da futbola eta hori ez da erraza Athletic bezalako klub sentimental batentzat: telebista-eskubideak, futbol profesionala, Ligak, Federazioak eta UEFAk ia egunero proposatzen dituzte proiektu berriak... Athletic klub artisautza da eta ekosistema egunero aldatzen da. Badakigu aldaketara moldatu beharko garela, baina duela 120 urte adostutako oinarriak aintzat hartzen ditugu. Athleticetik kanpo daudenek, ordea, sentimenduei baino garrantzi handiagoa ematen diete irudiari, merkaturari, diruari... Azken 30 urteotan Athletic etengabe dabil garai berrietara egokitzen.



Eta hainbat lagunek egiten dute lan oso gogor, hori lortzeko. Eskerrak eman nahi dizkiet horregatik.

Klubak nazioarteko enpresak dira gaur egun. Eta Athletic?

Guk kirola egiteko aukeratu dugun bidea etorkizuna da. Eta ziur nago beste talde batzuek gure ereduari jarraituko diotena. Klubek bat egin behar dute gizartearekin. Identitatea, lurraldea, tradizioa eta kirola uztartzen direnean, partidua mitikoa bihurtzen da. Athleticek jokatzen duenean, ez dute bakarrik 11 jokalarik jokatzen, baizik eta baita euren atzean dauden familiek, lagunek eta profesionalak



Kenan Kodro: "Harrituta utzi nau, dohaina duelako: jaurtitzen dituen pilota guztiak barrura doaz. Aurrelaria izatea oso zaila da eta oso gutxi daude. Kodro apustu ona izango da, lehiakortasuna piztuko dielako eskarmentuko aurrelariari zein gazteei".

Álex Remiro: "Mutil jatorra da, baina ez dakit zergatik erabaki zuen Athletic uztea. Espero dut kirolari lotutako erabakia hartu izana. Erratu egin dela uste dut, baina gure jokalaria den bitartean, errespetu osoz jokatu dugu berarekin, zelan ez".

Lehenengo taldea

Markel Susaeta / Gaizka Larrazabal: "Taldekako jokalariek nortzuk izango diren Garitanok eta Alkortak erabaki behar dute, ez nik. Gero nik euren erantzukizuna betearaztea eskatuko diet. Eta jokalariek maila erakutsi behar dute, datorren taldean jokatu ahal dutela erakusteko".

Fitxaketak: "Ikusiko dugu. Nork bere bidea egiten du: Vesgak, Javi Martinezek, edozeinek... Gure jokalariek miretsi behar ditugu. Guztiok egiten ditugu errakun-

tzak, eta horiek zuzentzeko aukera ere badugu. Llorente? Athleticen zailek miretsiko duten edo ez, hori bere esku dago. Dena dela, kirol arduradunek batez ere etxean duguna aztertu dute; eta kanpoko baten batek maila altuagoa ematen badu, hona ekartzen saiatuko gara, diru nahikorik badugu. Ez dugu aurrekontu-orekarik apurtuko. Aurrekontua bazkideek urrian onartutakoa da, sakratua".

izan ezin izan diren zaletuek ere. Horrek indar berezia ematen digu. Eta jokalaria bakoitzaren atzean klubeko jokalaria mitikoak ere badaude: beltzez jantzita ateratzen den atezaina, zazpi zenbakia, ezker hegalean aritzen dena... Athleticen historia gogorapen ederrez josita dago, eta horri esker geure historia kontatzen dugu. Gizakiok erreferentzia horiek guztiak behar ditugu, geure burua definitzen dutelako.

Zer emango diozu klubari?

Konpromisoa eta konstantzia dira nire ezaugarrietako bi. Eta horiek ekarri dizkiot Athletic. Baita nire ikuspuntua ere. Argi dut ogibidea eta pasioak esfortzu handiz atera ditudala aurrera: egun bakoitza bakarra da, eta azkena izango balitz bezala bizi behar da. Ziur nago presidentea izateak merezi duela. Hobekuntza lortzen badut, txikia bada ere, pozik ibiliko naiz.

Idatziz jasoko duzu klubaren filosofia?

Niri filosofia etxean irakatsi zidaten. Ez dugu idatziz behar, sentitu egiten dugu, bizi egiten dugu.

Zer egin nahi duzu Athleticen datoren lau urteotan?

"Niri filosofia etxean irakatsi zidaten. Ez dugu idatziz behar, sentitu egiten dugu, bizi egiten dugu"

Batetik, Fundazioa bultzatuko dugu, horrek epe ertainean zuzendu behar duela klubak. Athleticen, Fundazioaren bidez, hausnarketa batzuk egin behar ditu: gizartea, filosofia, marka, estatutuak, eskola, bazkideak, komunikazioa... Erabaki horiek ezin ditu presidente batek hartu, Fundazioak baizik; Athletic bihotzean daramagun guztiokin adostuta, noski. Batetik, kanpoko jokalaria gazteek Lezaman bizi behar dute egoitza batean. Gainera, klubeko bulegariak Ibaigane jauregia utziko dute eta San Mamesen egingo dute lan, elkarlanean, egunero. Eta, azkenik, klubaren eta bazkideen arteko harremanak erabat digitalizatuta egongo dira. Eta proiektu horiez gain, ilusio txiki bat dut:

"Klubek gizartearekin bat egin behar dute: kirola eta identitatea uztartzen direnean, partida mitikoa bihurtzen da"

egunen batean klubeko jokalaria guztiei jaten eman nahi diet.

Estatutuak aldatuko dituzue?

Gai hau bazkide askoren kezka da, adierazi diguten moduan. Estatutuak modernizatu egin behar dira, bazkideen iritzia klubetik aldentzen dutelako. Eta hori ezin da izan. Klubak ia egunero jaso beharko luke bazkideen iritzia. Beste alde batetik, definitu behar da nolako batzar motak zuzentzen duen klubak. Klubak zuzentzeko ereduak topatu behar ditugu, hazten jarraitzeko.

Zelan doa zaleen harmaila?

Lanean gabilta. Lehen, ateko atzealdean jartzen ziren zaletuak eta giroa desagertu egin dira zelai berrian. San Mames



"Athleticek bakarrik egin dezake aurrera, partida bakoitza azkena izango balitz legez jokatzeko badu"

hain da polita eta luxuzkoa gaur egun, ezen guztiok baikaude eserita, eroso. Ematen du partidak ez duela garrantzirik. Baina Athleticek bakarrik egin dezake aurrera, partida bakoitza azkena izango balitz legez jokatzeko badu. Ateko harmailak sustatzen baditugu, zaletasuna piztuko dugu. Leku egokia da lagunarte, familia eta umeentzat. Ikerketa egiten ibili gara eta ikusi dugu jende askok sartu nahi duela atearen atzeko harmailetan, baina eskaria eskaintza baino handiagoa da eta hori konpondu nahi dugu. Ez dakit denborarik izango dugun. Bazkidez bazkide egingo dugu, gure ustez, guztiek garrantzi berbera baitute. Bazkide bakoitzak nahi duenean eseri behar du.

"Txorierri leku zoragarria da"

Aitor Elizegi Alberdi (Bilbao, 1966) Santutxun jaio zen, Bilbon, eta bertan piztu zitzaion futbolerako zaletasuna. "Ez zegoen beste aukerarik, auzoa landaz beteta zegoelako eta guztiok Santutxu taldeko zaletuak ginelako. Santutxu eta Athletic taldeek beti izan dute harreman estua. Eta ia ohartu barik, Athletic norberaren bizitza bihurtzen da: lau lagun, familia, sukaldaritza eta Athletic. Zoriontsu sentitzen naiz hemen jaio izanagatik".

Han jaio, baina Txorierri ezkondu zen 30 urte zituela. Aldaketa ederra, Santutxuk dituen jendetza eta algaratik Txorierri eskaintzen duen lasaitasunera. "Bai, batzuetan erritmoa moteltzea ondo datorkit eta Txorierri hori egiteko ere aukera dut". Aitor oso gustura dabil gure artean. "Txorierri leku zoragarria da. Behar dudana guztia haranean bertan dago, edo hemendik

gertu-gertu: lana, itsasoa, Santutxu... Txorierri ausarta eta ekintzailea da: Bizkaian etorkizunean gertatuko diren gauza garrantzitsuak hemen gertatuko dira. Kulturari begira, euskaldun peto-petoak dira, tokian tokikoa defendatzen dute, konpromisoa dute herrialdearekin, euskararekin, emakumezkoekin...".

Elizegiren familiak jotetxe bi ditu Zamudion, *Gaminiz* eta *Erreka Ondo*, eta bera herriko bizitzan dago inplikaturik. Esate baterako, seme biek Zamudio KE taldean jokatzeko dute, kadete mailan. "Taldekako futbol eskola guraso batzuk bultzatu genuen orain 10 urte. Eskola gero eta hobea da eta horregatik harro-harro gaude. Oso polita da haraneko beste taldeen kontra jokatzeko, lehia bizia eta kiroltasunez betea. Horrek jaten ematen dio gure futbolari".

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA

informazio gehiago www.habe.euskadi.eus



EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIA 2019

- > Parte hartu ahal izateko: euskaltegi batean matrikulatuta egotea 2018ko ekainaren 1etik aurrera hasitako ikastaro batean
- > Euskaltegian lortutako mailak erabakitzen du zein mailatako probetara aurkeztu
- > Irakurmeneko eta entzumeneko probak euskaltegian burutuko dira
- > Urtean, bi deialdi (B2, C1 eta C2 mailak)
- > Matrikula-ordaina: 40 €

DEIALDI IREKIA 2019

- > Parte hartu ahal izateko: ez da beharrezkoa euskaltegi batean matrikulatuta egotea
- > Norberak aukeratzen du zein mailataara aurkeztu (gehienez bi mailataara aurkeztu daiteke)
- > Probak bi egunetan burutuko dira: batean, irakurmen- eta idazmen-probak; bestean, entzumen- eta mintzamen-probak
- > Urtean, deialdi bakarra (B1, B2, C1 eta C2 mailak)
- > Matrikula-ordaina: 75 €

DEIALDI BEREZIA (EUSKAL ETXEAK) 2019

- > Parte hartu ahal izateko: Euskal Etxeetako euskara-ikaslea izan behar da
- > 2018ko ekainaren 1etik aurrera hasitako ikastaro batean lortutako mailak erabakitzen du zein mailatako probetara aurkeztu
- > Probak Madrilgo, Bartzelonako eta Buenos Aireseko Euskal Etxeetan burutuko dira
- > Urtean, deialdi bakarra (B1, B2 eta C1 mailak)
- > Matrikula-ordaina: 40 €



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierri.eu

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Bizigune Zabal

Angela Menica Torre larrabetzuarra Bizigune Zabal proiektuaren sortzaileetarikoa bat da. "Emakumezko lagunen artean egindako egitasmoa da, umeak jagon eta euren beharrianak asetzeko. Baina baita gurasook alkarregaz egoteko be, eta gure beharrianak partekatu eta asetu", azaldu deusku.

Goikoelexaldeko txokoa urte bi eta erditik sei urtera bitarteko umeen topagunea eta ikasgunea da. "Hasi ginanean, umeak eskolara ez eroateko erabagia hartu genduan, ez ebelako beharrik. Horren orde, gure ustez, hau behar eben: astean hiru edo lau aldiz alkarregaz egon eta leku seguru bat olgetako eta beste erritmo batera hazteko. Eskolako ordutegia eta dinamika nahiko zorrotzak dira umeentzat, eta etxetik kanpo be lan egin ezker, beharbada ez dago beste erremediorik; baina pribilegio itzela da umeak eskolara ez bidali, hareekaz egon eta ikustea zelan hazten diran eta hareei laguntzea".

Brenda Otaola Zarraga lezamarra Bizigune Zabal egitasmoaren gaur egungo partaidea da. Bere berbetan, ume lar dagoz eskoletako ikasgeletan eta, ondorioz, gatz da euren beharrianen behar moduan erantzutea. Horregatik erabagi eben

Orain dala 10 urte, Bizkaiko sei familiak Bizigune Zabal proiektua ipini eben martxan Larrabetzun. Udalak Goikoelexaldeko txokoa itxi eutsen, eta bertan seme-alaba txikiak begirunez eta hareen garapen-erritmoren arabera hezteko gunea sortu eben. Egitasmoak indartsu jarraitzen dau harkada baten ostean.

alaba Goikoelexaldeko txokora eroatea. Ainhoa Eraso Gisasola larrabetzuarrak be gurago izan dau alaba ohiko eskolara ez eroan. "Ez neban beharrik. Bizigune Zabalera ekartzen dot, berak esan eustalako umeakaz egon gura ebala, eta, nire eritxiz, hemen dago hobeto. Proiektu polita da, eta neu be bertan egonda seguru sentitzen da".

Goikoelexaldeko txokoa sei ume batzen dira astean bitan, 10:30etik 14:30era. Azaldu deuskuen moduan, ikasturtearen hasieran ume gehiago izan ziran, 10 ume, eta gehiagotan batzen ziran, baina Bizigune Zabal proiektu malgua da eta etengabe moldatzen da umeen eta gurasoen beharrianetara. Izan be, partaideak Txorierrikoak ezeze, Bizkaiko beste herri batzuetakoak be badira –esaterako, Zalla, Leioa edo Gernika–, eta premiak be aldakorrak izan daitezke. "Halanda be, hiru irizpide iraunkor dagoz: gurasoek jagoten dabez umeak, hau leku segurua da eta pertsonak, materiala zein lekua errespetatu behar doguz".

Ohiko eskolea izan ez arren, umeek asko ikasten dabe Goikoelexaldeko txokoa, euren erritmora. "Hau lasai eta seguru bizitzeko eta ikasteko gunea da. Hainbat material dago eta umeek euren gogoaren arabera erabiltzen dabe. Ondorioz, kanpoan egon daitezke haregaz jolasten; edo barruan, margoten. Idea hau da: itxi umeak aske jolasten eta bizitzen". Neskatoak eta mutikoak gurasoek eurek zaintzen dabez, eta beti dago gitxienez



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txoriso 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

guraso bat txokoaren barruan, eta beste bat, kanpoaldean. "Laguntzen deutsegu momentu baten edo bestean daukiezan beharrianak kontuan hartuta. Dana dala, gurasook hau praktikatzen dogu: sena, umeen gauzetan lar ez nahastea, umore ona eta umeak eta gainerako gurasoak errespetatzea".

Abantailak

Seme-alabak "haurreskola edo ikastetxe alternatibo" batera bidaltzeak arazoak ekarri leikioezala pentsatu leike baten batek, baina hiru emakumeen ustez umeei abantailak baino ez deutsez ekartzen. "Euren erritmoa eta garapena errespetatzen diranez segurago eta indartsuago hazten dira normalean. Hau da, hemen ume batek bere kabuz edozein gauza ikasten daukela, horrek segurtasuna emongo deutso, aurrerantzean beste edozein gauza ikasteko. Sentimenduak be asko garatzen dabez eta oso autonomoak dira". Lekuak be aukera asko eskaintzen deutsez. "Gauza pilo bat dagoz eta beldur barik esperimentatu daikie: ahalegindu daitezke zuhaitz batera igotzen edo tresnaren bat erabiltzen ikasten". Bestalde, mobimentu-askatasuna dabe momenturo eta hori be ezinbestekotzat jotzen dabe. "Mobimenturik ez bada go, ez dagoalako ez ikasketarik, ez burmuinaren garapenik. Gainera, mobimentuak saihesten dauz hainbat arazo, hala nola dislexia eta arreata-defizita". Umeek sei urte bete, eta ohiko eskolan sartzen diranean be ondo integratzen dira. "Normalean, bai. Egia da bati beste bati baino gehiago kos-



tau ahal jakola, baina hori gurera etorri ez danari be gertatu ahal jako".

Askatasunez eta begirunez betetako lekua da Bizigune Zabal egitasmoa, eta umeentzat zein gurasoentzat da ikasgunea. "Guk be asko ikasten dogu bata bestearengandik, eta laguntasuna emoten deutsagu alkarri. Umeek hori ikusten dabe eta ikasten dabe. Bestetik, ahalegintzen gara euren arteko arazoak edo liskarrak eurek kudeatu dagiezala, eta, era berean, saiatzen gara balio-judiziorik ez egiten".

Larrabetzuko Udalak txokoa itxi deute eta horren truke Bizigune Zabalekoek herritar guztientzako ekintzak egiten dabez urtean bitan. Tailerrak antolatu dabez, antzerkia, hitzaldiak, ipuin-kontalariak...

Partaideek 20 euro ipintzen dabe urtero, alokairu sinbolikoa ordaintzeko eta etorri daitezkean gastuei aurre egiteko. "Edo zelan be, oso material gitxi erosi da urte honeetan, proiektuagaz hasi zirenek itxitakoa ona izan dalako eta, bestela, zaindu dalako. Umeek orain dala 10 urteko jostailuak erabiltzen dabez, eta poz-pozik".

Egitasmoaren sustatzaileek ez eben inondik inora pentsatuko hainbeste urte iraungo ebenik zabalik. "Asko poztu gaitu Bizigune oraindino osasuntsu dagoala ikusteak. Baleiteke jentea barritzen joan dan neurrian detaile batzuk be barritu izana, baina ziur asko orain gu hasi ginean baino trankilago ibiliko dira, edo hori gura dot pentsau", esan dau Menicak. Beste biek ezetz adierazo dabe buruagaz, eta onartu dabe hareek be zalantza eta bildur asko dakiezala. Bildurak alkarregaz eta alkarrengandik ikasita kenduko dabez, seme-alabak aske eta euren erritmorra hazten ikusten dabezan bitartean. "Eta hori luxu handia da".

Informazino gehiago:
Facebookean, @bizigune.

*"Eskola baino,
umeek leku seguru
bat behar dabe
olgetako eta beste
erritmo batera hazteko"*

*"Euren erritmoa eta
garapena errespetatzen
diranez segurago
eta indartsuago
hazten dira normalean"*

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
arregandik gertu
ABOKUARIATZA - TASAGIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALERROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Kale-animazinoa, aurtengo protagonista

Jai-usaina dago Derion. Aste banaka batzuk falta dira Derioko San Isidro jaiak hasteko, eta jai-batzordea azken uki-tuak egiten dabil herritar guztiek zer egin eta zertaz gozatu euki daien. Ekintzaz, musikaz eta animazinoz betetako bost egun izango dira.

Derioztarrek maiatzaren 15etik 19ra bitartean ospatuko dabez aurtan San Isidro jaiak. Ekitaldi gehienak asteburuan izango diran arren, umeentzako ekintzak egongo dira zaindariaren egunean, hilak 15; eta kale-antzerkia, hurrengo eguneko arratsaldean. Jaiei barikuan emongo jake hasiera ofiziala. Pregoia Sara Macarrilla eta Mikel Egia dantzariak irakurriko dabe. "Igaz, txapeldunordeak izan ziran Dantza Latindarren Espainiako Txapelketan, eta lorpena aintzatesteaz gainera, herriaren esker ona adierazo gura deusegu, beti azaldu diralako prest euren dantzea derioztarroi erakusteko eta irakasteko", esan dabe jai-batzordeko kideek.

Ohi legez, San Isidro jai-batzordeak herritar guztientzako ekintzak antolatu dauz. "Helburua da jaiek irauten daben bitartean jentea kalera ateratzea eta ekitaldietan parte hartu daiele, edota jai-giroan murgildu daitezala, betiere alkar errespetatuz. Hori lortzeko, eta adin eta gustu ezberdinak kontuan hartuta, jai-batzordea saiatu da ekintza mota zabala eskaintzen. Besteak beste, erespide honetara jarraitu deusegu ekintzak programatzeko orduan: euskerea, bardintasuna, aniztasuna eta parte-hartzea".

Aitatu dabenez, kale-animazinoak protagonismo handia izango dau aurtan. "San Isidro egunean, fanfarre ba-

tek girotuko dauz kaleak, eta maiatzaren 17an, pregoia irakurri ostean, Sakatu elektroxaranga berotuko dau giroa harik eta kontzertuak hasten diran arte. Eta zapatu arratsaldean karaoke ibiltaria egongo da. Bestalde, Udalak Diables Voramar talde kataluniarra gonbidatu dau jaietara: asteburu osoan zehar izango dira Derion eta ziur gagoz horreek be emonaldi ikusgarriak eskainiko dabezana".

Sakatu Elektroxaranga



Kartela

Uxue Iturbe Derioko artistak San Isidro jai-batzordearen proposamena onartu, eta jaietako kartela egin dau aurtan. "Askok gogoratuko dabe Uxue, orain dala denporatxo bat Kultur Birikan marrazkiak ikusgai ipini zituan eta". Iturbe ordenagailu bidezko ilustrazioaz eta diseinuaz baliatu da Kultur Birika protagonista dauen kartela egiteko. "Gehiegi apaindu gabeko irudi sinplea, baina aldi berean alaia, egin gura neban", esan dau egileak. Jai-batzordearen eritxiz, helburua bete dau, izan be, "Kultur Birika Derioko marka edo sinbolo moduan ulertzen dau; kulturaren eta kultur zaleen topagune moduan. Jai botzerdekook bereziki eskertu gura deusagu egindako lana!".

TXEPETXA aek ■ euskaltegia



Ondo pasa jaietan!
Eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari

aek

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean

—Aurrekontua doan

—Especialitatea:
umeak

DERIOKO JAIAK

ISIDRO DEUNA 2019

MAIATZAK 15-19

15 asteazkena

11:30-13:30

16:00-19:00

12:30-13:30

12:30

12:30

18:00

19:00

Ume eta gazte ekintzak

Marraski lehiaketa

Meza nagusia

Fanfarria

Marraski lehiaketaren sari-banaketa

XAIBOR diskofesta

16 osteguna

19:00

Kale antzerkia

TARANTELA (Xilipudi antzerkia)

20:00 Bezperako poteoa

17 ostirala

19:00

Pregoia eta Traka

Diablos Voramar

Txitxiburduntzia

SAKATU elektrotzaranga

22:00

Kontzertuak

**EL RUIDO
NØGEN
MAFALDA**

AIARALDEA Sound Sistema

18 larunbata

12:30

MUGI ZAITEZ diskofesta

14:30

Tortilla txapelketa, ostean bazkaria

16:30

Bazkalostean **JOKUAK**

18:00

Euskal Dantzak **LAINOMENDI** rekin

19:00

KARAOKE ibiltaria

22:00

Kontzertuak

PERROLOKO

MODUS OPERANDI

ALTXA PORRU erromeria

DJ PARTY

19 igandea

11:00-15:00

XXIV. Elikagai eta eskulangintza azoka

15:00

Herri bazkaria (Sukalkia)

16:30

Bizkaiko 4^{1/2}ko txapelketa (Derio kopa, finalak)

17:00

MAGIA erakustaldia **BILBAO MAGIA**

18:00

Txitxarrilloa

19:30

Txokolatada

20:30

Jai amaiera

*"Erespide honei jarraitu
deutsegu ekintzak
programatzeko:
euskerea, bardintasuna
eta aniztasuna"*

*"Fanfarre batek, Sakatu
elektrotxarangkak,
karaoke ibiltariak eta
Diablos Voramar taldeak
girotuko dabez kaleak"*

Joan dan urtean, tortilla txapelketea egin zan lehenengoz zapatu eguerdian, eta horren ostean mahaia eta aulkiak erabiltzeko aukerea emon zan, alkarregaz jai-giroan bazkaltzeko. "Aurten be antzeko plana egongo da eta igaz baino eguraldi hobea egotea espero dogu, ekintzan parte hartzera ahalik eta lagun gehien animatu daiten". Zapatu arratsaldean jokoak izango dira eta izen-emotea momentuan bertan egin ahal izango da. "Nobedade moduan, domekako herri bazkariaren ostean magoak ibiliko dira mahairik mahai, beranduago eskainiko daben emonaldirako publikoa animatzeko asmoz".

Alkarteen laguntzea

Jai-batzordeko kideen berbetan, aurten hainbat estiloko musika-taldeek eskainiko dabe kontzertua, izan be, saiatu dira jentearen gustuak kontuan hartzen eta herritarren eskakizunak beteten. "Derion tabernari izandako Carlosen taldeak, El Ruido taldeak, hasiera emongo deutso kontzertu-sailari. Ondoren, Nøgen taldeak igoko dau oholtzara, folk-pop-indie estiloko abestiak eskaintzera. Musika-emonaldi nagusia Mafalda Valentziako taldearena izango da, eta azkenik Aiaraldea Sound Sistemaren dub reggaeagaz amaituko da jaiak". Perroloko Txorierriko taldea zapatu gauean arituko da agertokiaren ganean; eta horren ostean, Modus Operandi ska taldea. "Taldea horretarako zenbait partaide Betagarri eta Vendettako taldekideak izan dira. Ostean, Altxaporru erromeria-taldea eta Dj Porty derioztarra eukiko doguz".



Lehen esan moduan, derioztarrek eta bisitariak jai parte-hartzaileak eta alaiak izatea da San Isidro jai-batzordearen helburu nagusia, "herria, herritarrak eta bisitariak errespetatuz". Horretarako, aurreko urteetan moduan, herriko kultur alkarte asko dabez ondoan eurekatz bate-

ra ekintzak antolatzen edo ekitaldiak proposatzen: Odol Argia, Sutondoan, Gure Señeak, SUBYKE, Lainomendi, Piperdun eta abar luzea. "Txitxi-burruntzian, marrazki lehiaketan, txokolatadan eta beste zenbait ekintzatan ezinbesteko dogu euren lana jaiak egin ahal izateko".

jarraitu f t i

KILZA
ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENA

Larrabari ibilbidea 1, behea
48160 DERIO
669 51 63 11 / 94 474 46 29
bilzaelectricidad@gmail.com

Imaz TABAKOAK
EXP. 002

Opariak eta osagarriak
Puruak grabatzea
Mobilak kargatzea
Barik txartela kargatzea

Gorbea, 6 | 48160 Derio | 94 454 07 69



Lainomendi ren
dantza erakustaldia

Maiatzaren 18an
arrastiko 18:00etan
Derioko plazan

ondo pasa jaietan !!

SUGOI TABERNA
Byron

smile

628 77 30 17
Goiko kalea, 2 behea
Derio (BIZKAIA)




electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Telf. / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)


DERIOKO EUSKARA ALKARTEA

Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!



 Konixa Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 *Ikastegia*

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hitzordua
solariuma

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160



Liliak
Loradenda

*Ezkontzetarako lore arteko
azken tendentziak eta klasikoak*

Ondo pasa jaietan!

Erdiko kalea, 2 / 48160-DERIO
94 454 12 23
www.liliak.eus
Facebook: liliak loradenda


Makilak, belaunaldiak batzeko

Politeknika Ikastegia Txorierrik heziketa-proiektu berezi eta berritzaile bat sustatu du Derioko Nagusien Etxearekin lankidetzan: ikasleak makila bana egiten dabilta 25 erretiraturentzat. Proiektuan zenbait ziklotako 125 ikasle eta irakasle daude nahasita, eta bidea izan da belaunaldien arteko hartu-emaña bultzatzeko.

t: Itxaso Marina / a: Politeknika Ikastegia Txorierri

“Politeknikan, eta batez ere Mekanika Departamentuan, arduratuta ibili gara komunitatearekin dugun harremana dela eta: lotura dugu enpresekin, baina herriarekin? Kezka horrek ideia hau ekarri zigun: erretiratuentzako makilak egitea. Gainera, proiektuak aukera emango liguke oraindik lanean hasi ez diren gazteak eta lanbizitza amaitu duten pertsonak harremanetan jartzeko. Interesgarritzat jo genuen belaunaldien arteko truke hori”, azaldu digu Urko Vidal mekanizazio-irakasleak. Derioko Nagusien Etxera jo, eta haren arduradunek eta kideek pozik onartu zuten proposamena.

Proiektu txikia egitasmo handia bihurtu da, eta gaur egun Mekanika Departamentuaz gainera beste departamentu batzuk ere badabilta proiektuan lanean. “Mekanizazio-zikloko ikasleak diseinuz eta fabrikazioaz arduratzen dira; Marketin Sailekoek publizitate-kanpaina bat egin



behar dute proiektua zabaltzeko; eta Ingurumen-hezkuntza Departamentukoek ibilbide bat diseinatu behar dute, erretiratuei makilak ematen dizkiegun egunean hura guztiok batera egiteko eta makilak estreinatzeko. Guztiak lehen mailako ikasleak dira; hala ere, mekanizazio-zikloko bigarren mailako ikasle batzuk ere ekarpena egin diote egitasmoari”.

Politeknikako ikasleak makila bakarrik eta eskusiboak lantzen dabilta, hau da, makila bakoitza bere jabearen beharrezan eta eskuaren forma kontuan hartuta egiten dabilta. Horretarako, erabiltzai-

leak elkarriketatu zituzten abenduan eta eskuak neurtu ere egin zizkieten. Idelfonso Rico Derioko Nagusien Etxearen presidentea da; Felix Rabadan, idazkaria; eta Eloy Concepcion, diruzaina. Hiru gizonak elkarriketetan hartu zuten parte. “Oso gazte jatorrak dira eta oso esperientzia polita izan zen”, esan digute. “Galdera asko egin ziguten gure bizitzari buruz eta makila zertarako erabiliko dugun ere galdetu ziguten. Baten batek mendian ibiltzeko erabiliko zuela erantzun zuen, eta horri altxairu herdoilgaitzezko punta duen makila egingo diote, baina gehienok kalean ibil-

Proiektuan Politeknikako hiru departamentu dabilta lanean; 125 ikasle eta irakasle guztira

Hogeita bost makila egingo dituzte, eta bakoitza bakarra eta eskusiboa izango da

Ikasleek eta erretiratuek lanari eta bizitza pertsonalari lotutako informazioa trukatu dute egitasmoari esker



tzeko erabiliko dugu eta punta gomazkoa izango da. Bestetik, aipatu beharra dago eskertzekoa dela ahurren neurria hartu izana, eskulekua eroso izan dadin”.

Makilek hiru atal dituzte: eskulekua, egurrezko makila eta “muturra”. Azken hori gomazko punta sartzen den aldea da. Ikastegiak egurrezko makila estandarrek erosi ditu eta ikasleak eskulekuak –aluminiozkoak– eta “muturrak” egiten dabilta. “Gure ahalmena kontuan hartu beharreko faktorea da, izan ere, bakarrik egin ditzakegu geometria batzuk”, zehaztu du Vidalek. “Dena dela, ikasleek ilusio handia dute proiektuarekin eta oso motibatuta daude: orain arte egin dituzten aleak ez dira inorentzat izan, probak izan dira; baina orain lantzen dabilta makila, ordea, pertsona batek erabiliko du”.

Balio sentimentala

Bestalde, Nagusien Etxeko kideek azpimarratu dute elkarriketak baliagarriak izan direla lan arloko eskarmentua trukatzeke. “Lan-ibilbideari buruz galdetu digute: non egiten genuen lan, zer ekoizten genuen... Harrigarria da nola aldatu diren lan egiteko era eta makilak egiteko modua. Lehen geuk egin behar genuen dena, eskuz: atal txikiak soldatu, atal handiago bat sortzeko; tornu orokorra erabili; tresnak sortu... Orain atalak osorik etortzen dira: horiek CNC makina batean sartu, eta dagokion programa teklatu egiten da. Ekinaren ekinez ikasten genuen lehen; orain dena eginda etortzen da”. Rabadane eskarmentua du makiletako puntak egiten, eta horiek ekoizteko modua erabat aldatu dela aipatu digu. “Nire garaian ez genuen barrualdea gehiegi lantzen: zimurtsu eta lakar, latz uzten genuen, labainkorra ez izateko. Baina hezetasuna dela-eta puntaren barruan zegoen egurra

arrakalatu egiten zen eta zati hori moztu egin behar izaten zen. Ondorioz, makilak txikiagotzen joaten ziren. Orain itsasgarri bereziak erabiltzen dira eta ez da zulatu behar punta egurrari lotzeko”.

Makilak maiatzean emango dizkiete jabeei. “Kontuan izan behar da ez direla denda batean erosiko ditugun makilak izango, baizik eta ikasleek maitasun handiz egin dituztela”, esan du Vidalek. “Ziur gaude asko gustatuko zaizkiguna. Azkenean balio sentimentala da inportanteena”, gaineratu dute besteek. Proiektua

bigarrenez egingo dute datorren ikasturtean. “Nagusien Etxeko kide askok eman zuten egitasmoan izena, baina ezin izan ditugu makilak guztientzat egin; hurrengoan izan beharko da. Hau proiektu berria da eta apur bat kostatu zaigu departamentuak koordinatu eta egitasmoa martxan ipintzea. Hala ere, prozesua baliagarria izan da ahulguneak edo hobetu beharreko aldeak antzemateko eta datozen ikasturteei begira horiek zuzentzeko”, azaldu du irakasleak. Makilek belaunaldiak batzen jarraituko dute, beraz.





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbitza Heziketa eta Sigaren irakaskuntzako ikastetxea

Unitzaga Itxale Kalea, 1
48160 - DEBA
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK IREKITZEKO EGUNA

Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu (18:30ean):

Apirilaren 9an
Maiatzaren 9an
Maiatzaren 30ean



BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazio eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

t: Itxaso Marina / a: Munduko Landagunea

Konferentziak seigarren aldiz egin zen Derioko Seminarioan, martxoaren 25etik 29ra bitartean, Munduko Landaguneak antolatuta. Bertan 65 herrialdetako 250 lagun baino gehiago batu ziren. "Familia-nekazaritza Euskadin ezagutzen duguna da: ustiatagia edo baserria familia batek kudeatzen du, nahiz eta soldatakoren bat izan dezakeen. Hala ere, kontuan hartu behar da nekazarien egoera ez dela berdina bertan, Afrikan edo Asian", azaldu digu Martin Uriarte Zugazabeitia Munduko Landagunearen presidentea. Uriarte LO-RRRA kooperatibaren zuzendari-kudeatzaileria ere bada, eta Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioaren presidenteordea.

Munduko Landagunea 1998ko azaroan sortu zen, Gasteizen egindako Merkataritza eta Nekazaritza Garapenaren Nazioarteko Biltzarren haritik. Munduko Landaguneak bost kontinenteetako 45 erakunde eta 40 milioi nekazari batzen ditu. Besteak beste, nekazaritzako erakundeak, ikerketa-zentroak eta kooperatibak daude haren barruan. Bere helburuak hauek dira: familia-nekazaritza eta landagarapen jasangarria. "2006an konturatu ginen, munduko erakundeak nekazaritza arloan lanean bazebiltzan ere, familia-nekazaritza ez zela behar moduan lantzen. Sektore horretako nekazarien bizitza eta errentak hobetu behar ziren". Munduko Landagunek lortu zuen Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 2014a Familia-nekazaritzaren urtea izendatzea. Gainera, 2019-2028 Familia-nekazaritzaren hamarkada onetsi zuen 2017an. Hamarkada maiatzean hasiko da Erroman.

Derion, Munduko Landagunearen ildo estrategikoak ezarri zituzten. "Batez ere hiru ardatz nagusi jorratuko ditugu hamarkadan: emakumezkoak, gazteak eta kooperatibak". Uriarteren esanetan, badaude erakunde nazionalak eta inter-

Familia-nekazaritza, aztergai Txorierrin

Munduan bi mila milioi nekazari daude, eta 580 milioi nekazaritzako ustiatagi. Horietatik 500 milioi familia-nekazaritzako ustiatagiak dira. Familia-nekazaritzak lehenengo sektorearen lanpostuen % 40 sortzen du eta munduko elikagaien % 80 ekoizten du. Hala ere, horretan dabilzan lagunak munduko txiroenak dira. Familia-nekazaritzaren Nazioarteko Konferentziak sektorearen arazoak eta jarraitu beharreko lan-ildoak izan ditu hizpide.



nazionalak gazteek nagusien lekukoa har dezaten lan egiten dutenak –hala ere, beharbada, ez dabilta nahiko luketen emaitza lortzen–, baina hutsunea dago emakumezko nekazarien kasuan. "Beharrezkoa da emakumezko nekazarien nazioarteko sarea osatzea, bakoitzak

bere egoeraren berri eman dezan eta elkarrengandik ikas dezaten hainbat arlori buruz, hala nola politika publikoak edota gatazkak nola konpondu". Derion, emakumezkoen lantaldea osatu zen eta bertan Asia, Afrika, Europako eta Hego, Erdialdeko eta Ipar Amerikako emakumeek hartu zuten parte. "Lurra izateko eskubideaz aritu ziren, ekoizteko eskubideaz, inputak eskuratzeko eskubideaz, ura izateko eskubideaz... Baina bizitzeko eskubideaz ere mintzatu ziren. Egia esan, oso konferentzia aberasgarria izan da, izan ere, hemen ditugun beharrianak eta beste herri batzuetan dituztenak erabat ezberdinak dira; eta herri batzuetan, gainera, premia horiek hil edo biziko kontuak dira".

*Munduko Landaguneak
bost kontinenteetako
45 erakunde eta 40
milioi nekazari
batzen ditu*

*Hiru ardatz nagusi
jorratuko dira 2019-2028
hamarkadan: gazteak,
emakumezkoak eta
kooperatibak*



Hirugarren ardatzari dagokienez, Munduko Landagunearen presidentek aipatu du diktadura komunistetan bizi izan diren edo kooperatibak gai politikoei lotuta egon diren herrialdeetako lagunak uzkur direla kooperatiba hitza erabiltzeko. "Nahiago dute asoziazionismoari buruz

hitz egin, betiere irizpide demokratikoan oinarrituta, eskaintzak batzeko, merkatan lekua izateko, lurrak edo ezagutza hartzeko edota produktuak merkaturatzeko".

Garapen jasangarria

Uriarteren ustez, hiru ardatz horiek lantzeak eragina zuzena edukiko du garapen jasangarriaren helburuak betetzeko orduan: pobrezia eta gosea ezabatzea, klima-aldaketa, planeta zaintzea eta pertsona guztiek ura izatea, beste batzuen artean. "Familia-nekazaritzak eragin handia du helburu horietan. Bestalde, munduko txiro gehienak familia-nekazaritzan badabiltza, sektore hori behar moduan jorratzeak munduko pobrezia eta gosea asko gutxitzea ekarriko du". Baina, azpimarratu duenez, konferentzian hausnartutakoak ez du ezetarako balio, gero bakoitzak "etxerako lanak" bere herrian egiten ez baditu eta ez bada politika publikorik sustatzen. "Horiei esker hobetuko dira pertsonen bizi-kalitatea, errentak eta eskubideak. Herrialde, herri eta gobernu bakoitzeko eginkizuna da". Horren harira, aipatu beharra dago Familia-nekazaritza-

ren Nazioarteko Konferentziak munduko hainbat politikariren babesa eduki duela: Marcela Villarreal, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen zuzendaria (FAO); Oana Neagu, COPA-COGEA Europako Nekazarien eta Nekazaritzako Kooperatiben Federazioaren zuzendaria; Ashwani Muthoo, Landa-garapenerako Munduko Funtsaren zuzendaria (FIDA); Iñigo Urkullu lehendakaria; Espainiako Ministerioko eta Eusko Jaur-laritzako ordezkariak; eta Asia, Afrika eta MERCOSURreko ordezkariak, esate baterako.

"Hurrengo urratsa da hainbat herritan batzorde nazionalak sortzea jarduketaplanak egiteko, eta dagoeneko batzorde nazionalak dauden herrietan jarduketaplan horiek ezartzen jarraitzea. Horretarako, diru-partida bat emango dute FAOK eta FIDAK. Aurrerapausoak eta horiek zein herritan egin diren jasoko da, lanean jarraitzeko. Adibide bat ematearren: lortu da Costa Rican familia-nekazaritzaren legea eta emakumezko nekazarien legea onartzea, eta helburua da jardunbide egoki horiek beste herri batzuetan ere martxan jartzea", jakinarazi du Uriartek.

OAKLAND ENGLISH
LEHENDAKARI LEIZADLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

PATXI KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nafarroa garapena - Txorierri 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 087 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

Peñasko arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Klika, klika, klika... Korrika!

a: Oier Beldarrain eta Aner Mentxaka

Euskerearen aldeko lasterketak 21. aldiz gurutzatu dau Euskal Herria, eta aurten hiru aldiz pasatu da Txorierritik. Apirilaren 10ean, eguerdian sartu zan Larrazbetzura eta harana zeharkatu ostean Uribe Kostara abiau zan. Leioa inguruan egoala, Goierriara sartu eta Txorierritik urtenda kostalderantz joan zan. Hurrengo egunean, apirilak 11, barriro sartu zan eskualdera. Lutxana-Erandiotik abiatu zan Erandiogoikora, handik Loiura, eta gero Uribe Butroerantz egin eban. Lauroetan Dolores Castaño egoan lekukoa hartzeko prest. Emakumeak 96 urte daukaz eta aurtengo Korrikan euskerearen lekukoa eroan dauan emakumerik zaharrena izan da. Korrikaren Txorierriko arduradunek be egin ebezan azken kilometroak.

Herritarrak herri guztietan izan ziren Korrikaren zain: giro itzela, kilometro batkotxean eta ibilbidean zehar. Alkarteetako, ikastetxeetako, enpresetako eta udal ordezkariak alkarri pasatu eutseen euskerearen lekukoa; atzean, txorierritarrek tipitapa, klika-klika.





tik tak

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55

Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO



HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiroprasajen

clínica dental
ZAINDUZ
hartz klinika

Txontxi etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzaindus.com | www.dentatzaindus.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txontxi etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 39
a.amondarain@euzkaleriet.net

Jatetxea **SAN ISIDRO**

ETXKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GIDOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 96
Fax 94 454 14 13

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

t: Xabier Diaz / a: www.quantamagazine.org

Joan den mende, Einsteinen erlatibitate orokorraren teorien oinarritutako ereduak zulo beltzak zeudela aurreikusten zuten; hala ere, 60ko hamarkadara arte alor hori ez zen benetan nabarmendu. Zulo beltzak hain dira masiboak, ezen beraien grabitate-indarrak argia ere harapatzen baitu: beraien ekarpen-indarretik ezin da ezer irten; ezta argia ere. Hortik datorkie izena: zulo beltzak.

Eta horrela bada, nola egiaztatu daiteke "hor" daudela? Alde batetik, horien inguruan dauden gorputzetan duten eragina neurtu dezakegu. Adibidez, Sagitario A* ez dugu oraindik ikusi, baina bere inguruan biraka dauden izarren mugimendua aztertuta, horiek indar handiko zerbaitek erakartzen dituela ondorioztatu dezakegu. M87* zulo beltzaren kasuan, ekarpen-


Apirilaren 10ean zulo beltz baten irudia aurkeztu zen lehen aldiz. Astronomia gustuko dugunok gure galaxiaren erdian dagoen Sagitario A* zuloaren argazkia espero genuen arren, M87*-rena zabaldu zen. Irudi ederra, berez; eta are ederragoa irudikatzen duenaz ohartzen garenean.

indarra neurtuz gero, kalkulatu da haren masa gure eguzkiarena halako 6.500 milioi aldiz dela; ezagutzen den masiboena. Bestalde, zulo beltzek xurgatzen duten materia asko azeleratzen da, eta hori dela-eta kargatuta dauden partikulek energia igortzen dute uhin elektromagnetiko gisa. Materiak oso azelerazio handia jasaten du eta, ondorioz, kargatuta dauden partikulek X izpiak igortzen dituzte, eta horiek

irradi-uhinak sortzen dituzte. Event Horizon Telescopea (EHT) irrati-uhinok antzemateko gai da.

Teleskopio hori ez da benetan teleskopio bakar bat, batera erabiltzen diren zortzi teleskopio baizik. Eta hemen dator berrikuntza teknologikoa (zeren, azken batean, orrialde hau teknologiariburuzkoa da, ezta?): horrelako irrati-uhinak detektatzeko oso teleskopio handia behar da, eraikiezina; horregatik, zortzi teleskopio jarri dira batera lanean, ia Lurraren diametroa duen teleskopio birtual bat eratuta. Hori guztia kudeatzeko, hardware eta software itzelak behar dira. Pentsa ezazue guk zelako "makina" dugun burmuinean, begi biren informazioa bateratzeko; kontuak atera, beraz, zelako sistemak beharko diren zortzi teleskopio batera kudeatzeko eta hortik datorren informazioa bateratzeko eta ulertzeko.

Batzuetan, zalantzan jartzen da programa horietan inbertitzen den dirua; nik argi dut merezi duela. Egitasmo hauek balio dute zientzia eta teknologiaren garapena azkartzeko eta, hortaz, gizartearena. Erronkarik ez dagoenean errazagoa da moteltzea, eta oinarritzko ikerketa hauetatik gizarte osora iristen diren garapen teknologikoak sortzen dira. Kasu konkretu honetan, hasi dira berrikuntzak medikuntzan eta optikan erabiltzen. Era berean, egitasmook gizakion beharrian eta motor ezinbesteko bi asetzeko balio dute: jakin-mina eta edertasuna.



<https://naukas.com/2019/04/10/la-primera-imagen-de-un-agujero-negro/>
<https://www.scientificamerican.com/article/at-last-a-black-holes-image-revealed/>
<https://theconversation.com/observing-the-invisible-the-long-journey-to-the-first-image-of-a-black-hole-115064>
https://eu.wikipedia.org/wiki/Zulo_beltz

GOXO-GOXO LOHIZUN
 Herrialdetik zabalik
 Ogi egutero
 Pastelak aukeratu
 Garsioltza, 77c
 48196 Lezama
 94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com

LEJARRENE JATETXEA
 Garsioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

TABERNA GAZTEI
 Eguneko menuak
 Ospakizunak
 Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
 944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Iñaki Gaminde ohorezko txorierritar euskaldunontzat

t: Juan Luis Goikoetxea

Erdaldun bi aurkitzen baditugu berba egiten Baserri Antzokian, ez dakigu biatarik zein den Loiukoa eta zein Zamudiokoa. Ostera, pertsona bi horiek betiko euskaldunak balira, erraz ohartuko ginatke zein den Loiukoa eta zein Zamudiokoa, ze herri bakoitzeko hizkerak berezitasun garbiak ditu, gaurkoz.

Dena den, itaunduz gero zertan diren desberdin euskara mota biok, erantzuna ez da hain gardena edonorentzat, baina bai Iñaki Gaminde Terrazarentzat, ze jakituna da, sakon arakatu du Txorierriko euskara. Horren erakusgarri dira liburu formatuan argitaratutakoak: *Zamudio berbarik berba*; *Derioztarren euskara*, *Lezama berbaz berba*. Eta artikulua oso ugarien artean: *Larrabetzuko testuen prosodia*, eta –Txorierri osoari dagokiona–: *Erlatiboak Txorierri* liburu ataletan argitaratua.

Bestalde, Bizkaia osorik hartuta –barruan Txorierri dela–, *Bizkaian zehar euskararen ikuspegi orokorra* liburua, bizkaieraren entziklopediatzat har genezakeena. Hor batzen dira euskaldunen ohiturak, jakituria nahiz jokoak, adibiderako Ahuntz erdara. Erdara hau esaldi arruntak silabak banaturik, erdian “T” edo “P” tartekatuz antolatzen da. Esate baterako Larra-



betzun: Miren> ti-MI-ti-REN eta Arrietan te-MI-te-REN; Nora zoaz?> NO-po-RA-pa-ZO-po-A-pa-Z. Ahuntz erdara hau guztiz aproposa da eskolarako edo entretenigarritzat erabiltzeko.

Horrez gainera, ikus-entzunezko materialak ere eskura jarri ditu Iñaki Gamindek taldean lan eginez: *Bizkaian zehar kantetan* CDa; eta Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perezekin batera

Eskolako Material Lantegia izeneko DVDa. Hortik at, zelan ahaztu “Irakurketa Ozena Bizkaian lantzeko materialak” bikaina.

Ni neu itzel poztuko nintzateke Iñaki Gamindek bildu eta landutako gure ondare aberatsa ezagutu, erabili eta ikasiko balitz eskola, euskaltegi nahiz etxeetan.

Eskerrik asko, Iñaki, Txorierriko euskaldunon izenean. Jarrai, ez jadanik EHUn irakasten, bai Euskal Herrian ikertzen.

**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denbortasun-erakundearen kidea

Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

BC Fun Fitness GYM

EKIPAMENDU BERRIA


Segimendu
pertsonalizatua

Zamudio (IAT ondoan)
**Prezio bereziak,
talde eta
enpresentzat**

Jarraitu

Ugaldeguren II Industrialdea, partzela 9, nabe 3
628836753 - 944520815 gymtxorierri@gmail.com

Etxeko sukaldaritza



t: Maite Lekerika / a: canalcocina.es

Osagaiak:

- Anana-lata handi bat
- “Sobaoak”
- 500 ml esne-gain
- Karamelu likidoa
- Ananazko gelatina-zorro bi

Prestetako errea:

Anana-latan dagoan ura gordeko dogu. Tartak egiteko moldea karameluz igurtziko dogu eta anana ipiniko

Anana-tartea

dogu. Horren gainean “sobaoak” ipini, eta emeki sakatuko doguz. Bestetik, anana-ura berotuko dogu eta gelatineaz gehituko deusaguz. Hagatxo batez eragingo dogu. Ondo urtzen danean surtatik kendu, eta esne-gaina gehituko dogu. Ondo eragin eta moldera botako dogu. Hozkailuan sartuko dogu, eta bertan 4-5 orduan izango dogu. Bezperan egiten bada, hobeto.

Pastea pesto eta brokoliagaz

Osagaiak:

- Osagaiak:
- 250 g brokoli
- 300 g pasta
- 100 g gazta parmesano birrindua
- Albaka
- Oriba-olioa
- Gatza
- Piperbeltza
- Limoi erdiaren ura

Prestetako errea:

Brokolia txikitu, eta bost minutuan egosiko dogu. Pastea brokolia egosi dogun uretan egosiko dogu, harik eta puntu-puntu egon arte. Irabiagailurako edalontzi baten ipiniko doguz honeek: gazta parmesanoa, dl bat orio, albakea, limoi-ura eta koi-larakada bi brokoli egosia. Irabiaturako dogu eta saltsea pasteagaz eta brokoliagaz nahastuko dogu. Beharrezkoa bada, gatza eta piperbeltza botako deusaguz.



a: www.cocinayvino.es

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

sarraila-denda
Txorierri

ADITUMK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cearraierriatxorierri.com
www.cearraierriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkioa, 4 lorja
48160 Orio

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami buzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA



Nerea Pedrosa Cto. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.orientacionandujar.es

Okerrak zuzenduz: Aurreko alean, oker bat egin genuen orrialde hone-tan. Irudi ezberdin bi argitaratu behar-rean, irudi bera plazaratu genuen. Eskerrik asko @Andonisolor irakurleari, okerraren berri emategatik.



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Kontrako eztarritik (Susa), Uxue Alberdi.

–Poesia kaiera (Susa), Cesare Pavese.
Itzulpena: Ion Olano Carlos.

–Disoluzio agiriak (Susa) Jose Luis Otamendi.

–1362 km euri (Elkar), Goizalde Landa-baso / Garazi Goia.

LITERATURA: GAZTEAK

–Kornelio (Pamiela), Leo Lionni.

–Hartz Zaharraren sekretua (Pamiela),
Pedro Mañas, Zuzanna Celej (Il).

–Elmer eta Haizea (Erein), David McKee.
Itzultzailea: Antton Olano Iurtia.

–Errebelde 50 bider

(Erein), María Or-casitas-Vicandi,
Ángela García
Mardones
eta Andrea
Perales Fdez.
de Gamboa.



Sudokua

			8					
				6	5		1	
		1				6		
5		7			8			
	8							1
			3	4				
6						7	4	5
4	2							
	5	3			6	2		

8	6	2	9	1	4	3	5	7
3	9	1	6	7	5	8	2	4
5	4	7	3	8	2	6	1	9
7	8	5	2	4	3	9	6	1
1	3	6	7	5	9	4	8	2
9	2	4	8	6	1	7	3	5
2	5	9	4	3	6	1	7	8
6	1	8	5	9	7	2	4	3
4	7	3	1	2	8	5	9	6



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

Azokak

Zamudio

- > Nekazamudio. Maiatzaren 4an, 11:00etan, Kultura Etxean.

Erakusketak

Sondika

- > Umeentzako pintura ikastaroaren lanak. Maiatzaren 6tik 17ra, erakusketak aretoan.
- > Helduentzako pintura ikastaroaren lanak. Maiatzaren 20tik 31ra, erakusketak aretoan.

Euskara

Derio

- > Zizta Eguna. Maiatzaren 10an, 19:00etan, Txorierri txokoan. Tximintx euskara elkarteak antolatua.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Iñigo Aranbarriren *Munduko tokirik ederrena* lana. Maiatzaren 16an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Derio

- > Kometa tailerra. Maiatzaren 11n, 11:00etatik 14:00etara, Kultur Birikan.
- > Estanpazio tailerra, zortzi urtetik 14 urtera bitarteko umeentzat. Maiatzaren 21ean, 17:00etatik 19:00etara, liburutegian. Izena ematea: liburutegian.

Zamudio

- > Menopausia. Maiatzaren 6tik aurrera, 17:00etatik 19:00etara, Kultura Etxean.
- > Zen meditazioa. Maiatzaren 16an, 19:00etan, eskolako musika gelan.
- > Umeentzako tailer zientifikoa. Maiatzaren 18an, 11:30ean, liburutegian.
- > Kromatografia, lau urtetik gorako umeentzat. Izena ematea: maiatzaren 2tik aurrera, kopurua bete arte. Informazioa: liburutegian.

Lezama

- > Emakumeentzako batukada tailerra. Maiatzaren 15ean, 17:00etatik 20:00etara; eta maiatzaren 18an, 10:30etik 13:30era. Uribarri Topalekuan. Izena ematea: maiatzaren 12 baino lehen. Informazio gehiago: berdintasuna@txorierri.eu.

Irteerak

Sondika

- > Urdaibai. Ekainaren 2an, 09:00etan, eskolan. Izena ematea: maiatzaren 29ra arte, liburutegian. Prezioa: 3 euro.

Lezama

- > Izki. Maiatzaren 12an, 08:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Peña Karria. Maiatzaren 18an, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Ibilaldia. Maiatzaren 19an, Lekeition.

Lehiaketak

Derio

- > XV. Argazki Rallya. Maiatzaren 11n, 10:00etatik 13:30era, Kultur Birikan. Derioko Argazki Taldeak eta Derioko Udalak antolatua. Saria ematea: maiatzaren 25ean, 12:00etan, Kultur Birikan. Informazio gehiago: www.datfotoderio.com.

Zamudio

- > Balkoi Apainduen Lehiaketa: loreak banatzea. Apirilaren 18an, 10:00etatik 14:00etara, Bidekoetxe parkean (eguraldi txarra egiten badu, frontoian).

Musika

Sondika

- > Kaleko musika jaialdia. Maiatzaren 3an eta 4an, 20:00etatik 24:00etara.
- > Udaberriko kontzertua: Txuma Olagüe abesbatza (ahots nahasiak), Agrupación Coral Olagüe (ahots lodiak) eta Los Templarios (ahots lodiak). Maiatzaren 25ean, 20:00etan, San Joan elizan.

Loiu

- > Ipar Alde abesbatza. Maiatzaren 17an, 17:00etan, Gurena egoitzan.

Derio

- > Udaberriko kontzertua: Ipar Alde abesbatza. Maiatzaren 10ean, 19:00etan, San Isidro elizan.
- > Herrialdeen arteko kontzertua: Ipar Alde abesbatza eta Txorbela otxotea. Maiatzaren 18an, 20:00etan, San Isidro elizan.

Zamudio

- > Gozatu Zamudio: Mister Team. Maiatzaren 11n, 19:00etan, herrigunean.

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola. Maiatzaren 19an, 18:30ean.
- > Maiatza Musikala. Maiatzaren 24an, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Ospakizunak

Larrabetzu

- > Bizkargi Eguna. Maiatzaren 4an, 12:00etan, plazan: Bizkargira igoera. Maiatzaren 5ean; ekitaldiak, goizean, mendian; arratsaldean, urian.

Zamudio

- > San Isidro. Maiatzaren 15ean, 14:30ean, Zamudioko Lur-langileen elkarteak antolatua. Bazkaria eta trikitilariak.
- > Txorierri Basketland denboraldi amaierako jaia. Maiatzaren 25ean, 10:00etan, Bidekoetxe parkean (eguraldi txarra egiten badu, eskolan).

Bestelakoak

Larrabetzu

- > Liburuaren Eguna: eskolako 6. mailako ikasleen irakurraldia. Maiatzaren 2an, 19:00etatik 19:30era.
- > Zortzi herritarrek ipuinak kontatuko dizkiete herriko umei. Maiatzaren 3an, 15:00etatik 15:30era, eskolan.



historia zuk idazten duzu

ehbildu

Oskar Matute

Bizkaitik Kongresurako
zerrendaburua

**ERA
BA
KI.**

zure botoak asko balio du